

## ARTELANAREN JATORRIA. Martin Heidegger

Jatorriak esan nahi du hemen gauza bat nondik eta zeren bidez den bera dena eta den bezalakoa. Zerbait den hori, nolakoa den hori, horri deitzen diogu haren esentzia. Zerbaiten jatorria da bere esentziaren etorburua. Artelanaren jatorriari buruzko auzia bere esentziaren etorburuari buruzko auzia da. Obra, ohiko irudikapenaren arabera, artistaren lanetik eta lanaren bidez sortzen da. Baina, zeren bidez eta nondik da artista, bera dena? Obraren bidez; izan ere obrak maisua goraiatzeko duela esateak esan nahi du: obra dela inolaz artista arte-maisu bezala azal arazten duena. Artista da obraren jatorria. Artelana da artistaren jatorria. Ez dago bata bestea gabe. Orobat bietako ez bata ez besteak, bere hartan bakarrik, bermatzen du bestea. Artista eta obra *dira* bakoitza bere hartan eta beren arteko harremanetan aurretiko den hirugarren baten bitartez: artistak eta artelanak beren izena zor dioten artearen bitartez, alegia.

Baldin derrigorrezkoa bada artistaren jatorria obra dela baina egintzaren jatorria artista ez den beste era batera, hain ziur da artea, beste era batean oraindik, artistarentzat eta obrarentzat jatorri dela. Baina izan al daiteke, izan, jatorri bat artea? Non eta nola gertatzen da artea? Artea, hitz soil bat baino ez da, egiazkorik ezer ez datorkiona. Irudikapen orokor gisa balio dezake, arteari dagokionez bakarrik egiazko dena haren azpian jarriz: artelanak eta artistak. Arte hitzak irudikapen orokor bat baino zerbait gehiago adierazi nahiko balu ere, arte hitzarekin adierazia izago litzateke bakarrik obren eta artisten egiazkotasunean oinarrituz. Edo alderantziz da gauza? Obra eta artista egon daude, artea beren jatorri bezala badagoen neurrian?

Edozein delarik ere erabakia, artelanaren jatorriari buruzko auzia artearen esentziari buruzko auzi bilakatuko da. Baina zabalik geratu behar duenez ea arterik izan baden eta nola den, artea zalantzarik gabe nagusi zen lekuan bilatu beharko dugu artearen esentzia. Artea artelanean dago. Baina zer eta nolakoa da artearen obra bat?

Zer datekeen artea, obratik eratorri beharko litzateke. Obra zer datekeen, artearen esentziaren bidez bakarrik jakin dezakegu. Edozeinek erraz igar dezake bira eta bira ari garela. Adimen arruntak eskatzen du zirkulu hau ekidin dadin, logikaren kontrako hobena denez. Uste baita artea zer den eskura dauden artelanetatik atera daitekeela haien behaketa erkatzailearen bidez. Baina nolatan jakin dezakegu guk ziur gisako behaketa bat egitean artelanak daudela oinean, aldeztatik ez badakigu zer den artea? Baina eskura dauzkagun artelanen ezaugarrien bilduma baten bidez erdiets ezin daitekeen bezala, ezin erdiets daiteke artearen esentzia goragoko kontzeptuetatik ondorioztatuz ere; izan ere, aldeztatik artelantzat daukaguna halako bezala azal dadin aski izango diren zehaztapenak dauzka ondorioztatze horrek aldeztatik begien aurrean. Dauden lanak biltzea ordea eta printzipioetatik ondorioak ateratzea hemen bata zein bestea ezinezko dira eta, erabiltzen direnean, autoiruzur bat dira.

Horrela, bada, zirkulua osatu behar dugu. Hori ez da ez baliabidea, ez gabezia ere. Bide honetatik abiatzea indarra da, eta bide honetan irautea pentsatzearen festa da, baldin pentsatzea

tresna bat bada. Ez bakarrik obratik arterako urrats nagusia, artetik obrarako urratsa bezala, da zirkulu bat, baizik gu ematen saiatzen garen urrats bakoitzak egiten du bira zirkulu honetan.

Obran egiaz aurkitzen den artearen esentzia aurkitzeko, bila dezagun egiazko obra eta galde diezaiozun zer eta nolakoa den.

Denok ezagutzen ditugu artelanak. Herriko plazetan daude jarriak eraikuntzako eta eskulturako obrak, elizetan eta etxebizitzetan. Bildumetan eta erakusketetan aurkitzen dira garai eta herri anitzetako artelanak. Baldin obrak beren egiazkotasun ukigabeen ikusten baditugu eta horretan aurreiritzirik gabe jokutzen badugu, orduan ikusiko dugu: obrak gauzak bezain era naturalean existitzen direla. Horman zintzilik dago irudia, ehizaeko izkilua edo kapelua dauden bezala. Pintura bat, adibidez laborari oinetako pare bat irudikatzen duena, erakusketa batetik bestera dabil. Obrak bidaltzen dira Ruhr eskualdeko ikatza edo Oihan Beltzeko arbolak bidaltzen diren bezala. Hölderlinen ereserkiak, gerra garaian, garbigailuak bezala sartzen ziren motxiletan. Beethovenen kuartetoak patatak sotoan bezala zeuden argitaletzeko arasetan.

Obra guztiek daukate gauza-izaera hau. Zer izango ote lirateke hau gabe? Baina beharbada obraren ikuspegi biziki zabar eta azaleko honek txokatuko gaitu. Artelana gisa honetan irudikatuz mugi daiteke ondasun-zaintzailea edo garbiketako emakumea. Guk ordea haiek sentitzen eta dastatzen dituztenek bezala egin behar dugu topo obrekin. Baina sarri aipaturiko sentipen estetikoak ere ez dio ihes egiten artelanaren gauza-izaerari. Harrizkotasuna aurkitzen da eraikuntzan. Egurrezkotasuna aurkitzen da zurgintzan. Kolorezkotasuna pinturan. Ozentasuna hitzezkoan. Soinuzkotasuna musikan. Gauza-izaera hain irmo dago artelanean, non guk are alderantziz ere esan behar dugun: eraikuntza aurkitzen da harrian. Zurgintza aurkitzen da egurrean. Pintura aurkitzen da kolorean. Hitzezkoa aurkitzen da ozentasunean. Musika obra aurkitzen da soinuan. Argi dago... erantzungo da. Jakina. Baina argi dagoen gauza-izaera hori zer da artelanean?

Beharbada alferrikako eta nahasgarri izango da horri buruz galdetzea, artelana gauza-izaeraz gaindi beste zerbait ere badelako. Haren baitan dagoen beste horrek osatzen du artezkoa. Artelana egiaz da gauza egin bat, baina beste zerbait adierazten du gauza soil bera baino, \_\_\_\_\_. Obrak bestearekin ezagun egiten du, bestea errebelatzen du; alegoria da. Gauza osatuarekin batera artelanean beste zerbait elkartuko da oraindik. Elkartzea grezieraz \_\_\_\_\_ esaten da. Obra sinbolo da.

Alegoriak eta sinboloak eskaintzen dute irudikapen esparru bat, zeinaren ikuspuntuan mugitzen den aspaldidanik artelanaren ezaugarritzatzea. Beste bat errebelatzen duen obrako batasun hori bakarrik, beste batekin elkartzen duen batasun hori da gauza-izaera obran. Balirudike, gauza-izaera litzatekeela azpiegitura non eta noren gainean dagoen eraikia bestea eta berezia. Eta ez al da gauza-izaera hau obran, artistak bere eskulanaz berariaz egiten duena?

Artelanaren egiazkotasun zuzeneko eta betea aurkitu nahi genuke; horrela aurkitzen baitugu aurkitzen harengan egiazko artea ere. Beraz, lehenbizi obraren gauza-izaera hartu behar dugu begien aurrean. Horretarako ezinbesteko da nahikoa garbi jakin dezagun zer den gauza bat. Horrela bakarrik esan ahal izango da ea artelan bat gauza bat den, baina gauza bat nori bestea ere itsasten zaion; orduan soilik erabaki ahal izango da ea obra funtsean beste zerbait den eta ez gauza bat.

### *Gauza eta Obra*

Zer da egiaz gauza, gauza den aldetik? Horrela galdetzen dugunean, gauzaren gauzaizatea (gauzatasuna) ezagutu nahi dugu. Beharrezkoa da gauzaren gauza-izaera esperimendatzea. Aspaldidanik gauza izenez ezagutzen dugun oro biltzen duen ingurumaria ezagutu behar dugu horretarako.

Bideko harria gauza bat da eta zokorra soroan. Txarroa gauza bat da eta bideko iturria. Baina zer gertatzen da txarroko esnearekin eta iturriko urarekin? Hauek ere gauzak dira, baldin hodeiak ortzian eta kardua lurrean, baldin hostoa udazkeneko haizetan eta aztorea basoaren gainean izen propioz gauza deitzen badira. Guzti honi benaz gauza bat deitu behar zaio, baldin inolaz, puntuan aipaturikoak bezala, agerian jartzen ez denari, hau da, azaltzen ez denari gauza izena ematen bazaio. Gisako gauza bat da, bera azaltzen ez dena, «gauza bat berez» alegia, Kanten arabera, adibidez, munduaren osotasuna, are Jainkoa bera da gisako gauza bat. Gauzak berez eta azaltzen diren gauzak, izan den baden oro, filosofiaren hizkeran gauza bat deitzen dira.

Hegazkina eta irratia gaur egiaz gauza hurkoen artean daude noski, baina guk azken gauzak aipatzen ditugunean, orduan erabat bestelako zerbait daukagu gogoan, alegia: heriotza eta azken juizioa. Oro har hemen gauza hitzak azken batean ezerez ez dena adierazten du. Adiera honen arabera artelana ere gauza bat da, baden zerbait den neurrian. Halere gauzaren kontzeptu honek ez digu laguntzen, zuzenean bederen, badena gauzaren izateko modutik, obraren izate modutik zuintzeko gure ahaleginean. Bestalde, nekeak ditugu inondik ere Jainkoari gauza deitzeko. Nekeak ditugu, orobat, soroan dagoen nekazaria, labearen aurrean dagoen berotzailea, eskolan dagoen irakaslea gauza bat deitzeko. Gizakia ez da gauza bat. Egia da gehiegizko lanean diharduen neskatila gazte bati gauza oraindik gazteegia deitzen diogula, baina hori da gizaki izatea hemen nolabait huts ematen dugulako eta gehiago gauzaren gauza-izaera osatzen duena aurkitu uste dugulako. Nekeak ditugu areago oihaneko argigunean dagoen basahuntza, belarretan dagoen kakalardoa, belar-izpia gauza deitzeko. Horratik guretzat gehiago dira gauza mailua edo oinetakoa, aizkora eta erlojua. Baina ez dira gauza soil ere. Halakotzat dauzkagu harria, lur-zatia, egur puska. Naturako eta erabilerako bizibakoa. Naturako eta erabilerako gauzak dira gauza deitu ohi ditugunak.

Hala ikusten ditugu gure buruok dena, baita gauza goren eta azkenak ere, gauza bat (gauza = res = ens = baden bat) den esparrutik, gauza soilaren barruti estura erakarriak. «Soilak» hasteko hemen adierazten du: gauza hutsa, gauza bakarrik dena eta ez ezer gehiago; «soilak» esan nahi du orobat: gauza baino ez, zentzu kasik erdeinuzkoan. Gauza soilak, erabilerako gauzak beraiek alde

baterra utzirik, hartu ohi dira gauza propioztat. Zertan datza, orduan, gauza hauen gauza-izaera? Haien arabera zertu behar da gauzaren gauzatasuna. Zertze horrek jartzen gaitu gauza-izaera gauzazkotasun den aldetik finkatzeko eran. Horrela prestatu markak dezakegu obraren egiazkotasun kasik haztagarri hura, non beste zerbait ezkutatu den.

Ezagunak eman ohi da, aspaldidanik jada, badena berez zer den galdetzean, gauzak beren gauzatasunean ateratzen zirela behin eta berriro baden erabakigarri bezala. Hartaz, badenari buruzko tradiziozko ulermoldeetan gauzen gauzatasunaren mugarekin topo egin behar dugu hain zuzen ere. Horregatik gauzari buruzko tradiziozko jakintza hori berriaz segurtatu baino ez dugu behar, gauzaren gauzazkotasunaren bilaketa elkorretik libratu gaitezke. Gauza zer denari buruzko galderen erantzunak hain dira ohikoak hein batean non ez den uste izaten haren ostean zer galdeturik gehiago egon litekeenik.

Gauzaren gauzatasunaren ulermoldeak, mendebaldeko pentsaeran zehar nagusi izan direnak, aspaldi jada ageriko bihurtuak eta gaur eguneko erabili ere erabiltzen direnak, hiritara laburbil daitezke.

Gauza soil bat da, adibidez, granitozko bloke hori. Gogorra da, astuna, nasaia, trinkoa, itxurabakoa, lakarra, koloretsua, hemen margula, han distiratsua. Aipaturiko guztia harritik atera dezakegu. Bere ezaugarriak ezagutzen ditugu horrela. Baina ezaugarriek harriari berari dagokiona adierazten dute inolaz. Bere tasunak dira. Gauzak dauzka. Gauzak? Zertan pentsatzen dugu guk, gauza adierazten dugunean?

Ustez, gauza ez da bakarrik osotasuna eratzen duten ezaugarrien bilduma, ezta tasunen pilaketa ere. Gauza da, bakoitzak jakin uste duen bezala, zerbait noren inguruan tasunak bildu diren. Gauzen muinaz mintzo ohi da orduan. Greziarrek hori \_\_\_\_\_deitu bide zuten. Gauzaren muineko hori, beraien ustetan, oinarrian eta beti begien aurrean zegoena zen, noski. Ezaugarriak, aldiz, deitzen ziren \_\_\_\_\_, alegia, aldioro begien aurrean dagoenarekin beti jarria dagoena eta harekin batera azaltzen dena.

Deitura hauek ez dira halabeharrezko izen batzuk. Haietan mintzo da, hemen gehiago azal ezin badaiteke ere, badenaren izatearen funtsezko esperientzia greziarra presentziaren zentzuan. Zehazketa hauen bitartez, ordea, aurrerantzean agerikoa izango den gauzaren gauzatasunaren ulermoldea sortzen da eta badenaren izatearen ulermolde mendebaldarra finkatuko da. Hitz grekoak pentsaera erromatar-latinora aldatuz hasten da. \_\_\_\_\_subiectum bilakatuko da; \_\_\_\_\_substantia; \_\_\_eranskina. Deitura greziarren hizkuntza latinora itzultze hau ez da ondoriorik gabeko jokamolde bat, gaur egun oraindik uste ohi den bezala. Aldiz, itxuraz hitzez-hitz egindako eta, hortaz, itzulpen kontserbatzaile honen ostean ezkututzen da esperientzia greziarra beste pentsamolde batera *bestealderatze* bat. *Pentsaera erromatarrek hitz grekoak jasotzen ditu haiek adierazten duten pareko jatorrizko esperientziarik gabe, hitz grekorik gabe.* Mendebaldeko pentsaeraren oinarri gabezia bestealderatze horrekin hasten da.

Gauzaren gauzatasunaren definizioa, substantziarena bere eranskinekin bezala, finkatzea badirudi gauzekiko gure begirada naturalari dagokiola, ohiko ustearen arabera. Ez da harritzeko, baldin gauzekiko ohiko jarrera ere, alegia gauzei zuzentzea eta haiei buruz mintzatzea, ohiko ikuspegi honi egokitu bazaio. Perpausa arrunta osatzen da subjektuaz, hau latinezko itzulpena delarik, eta hori da jada \_\_\_\_\_hitzaren esanahi-aldaketa bat, eta predikatuaz, honen bidez gauzaren ezaugarriak adierazten direlarik. Nor ausartuko litzateke gauzaren eta perpausaren, perpausaren eraketaren eta gauzaren eraketaren arteko funtsezko erlazio sotilak astintzen hastera? Halere, galde egin behar dugu: perpausa sotilaren egitura (subjektuaren eta predikatuaren uztarketa) gauzaren egiturarekiko (substantzia eranskinekin bateraketarekiko) irudi ispilatua al da? Edo horrela aurkezturiko gauzaren eraketa perpausaren armazoiaren arabera asmatua izan da?

Zer dago nabarmenago, ez bada gauzaren ulerkera gizakiak bere perpausetan gauzaren beraren eraketara aldatzea baino? Iritzi, azalean kritikiko baino halere, arinegi honek lehenbizi ulergarri egin beharko luke nolatan posible litzatekeen perpausaren eraketa gauzara aldatze hori, aurretik gauza ikusteko moduko bihurtu gabe. Lehenbiziko eta erabakigarri zer den, perpausaren eraketa edo gauzaren eraketa, gaurdaino erabaki gabe dagoen galdera da. Are zalantzazkoa ere bada ea galderak, era honetan, inolaz irtenbiderik ba ote duen.

Funtsean ez perpausaren eraketak erabakitzen du gauzaren eraketaren zirriborroa, ezta hau ere ispilatzen da besterik gabe hartan. Biak, perpausaren eta gauzaren eraketak, datoz beren izakeran eta beren elkarren arteko harreman posibleetan iturburu bat beretik. Edozein modutan,

lehenbizi aipaturiko gauzaren gauzatasunaren ulermoldea, gauza bere ezaugarrien ekarle bezala, oso ohiko izan arren, ez da dirudien bezain naturala. Guri natural bezala azaltzen zaiguna ohitura luze baten ohikoa baino ez da beharbada, iturburu duen ezohikoa ahaztu duena. Ezohiko hura behinola gizakiari harrigarri bezala oldartu zitzaion, eta bere pentsaera harridurara eraman zuen.

Gauzaren ohiko ulermoldearekiko segurantza itxuraz bakarrik dago oinarriturik. Gainera gauzaren kontzeptu honek (gauza bere ezaugarrien ekarle bezala) ez bakarrik balio du gauza soil eta propioarentzat, baizik baden edozeinentzat. Horren laguntzaz, beraz, ezin bereiz daiteke sekula baden gauzazkoa ezgauzazkotik. Halere, bestelako gogoeten aurretik, gauzen ingurunean erne egoteak berak esaten digu dagoeneko gauzaren kontzeptu honek ez duela jotzen gauzaren gauza-izaera, berezko zuena eta haren baitan zetzan hura. Batzuetan badugu guk susmoa, ezen aspaldidanik gauzaren gauza-izaera bortxatu egin dela eta bortxaketa horretan pentsamendua jokoan dagoela, horregatik pentsatzeari uko egiten zaiolarik, pentsatzea pentsatzaileago bihurtzeko nekeak hartu ordez. Baina zer leku dauka gauzaren esentzia finkatzean susmoak, oso segurua izanda ere, hitza pentsatzeari bakarrik datorkionean? Beharbada, hala eta guztiz ere, hemen eta gisako aukeratan susmo edo sentimendu deitu ohi duguna arrazoizkoagoa, alegia arretatsuagoa da, izatearekiko arrazoi oro baino irekiagoa delako, hau, arrazoa bien bitartean ratio bihurtu delarik, arrazional gisan oker ulertu baita. Bideanbar, ir-razionalari, arrazional pentsatu gabearen munstrokeria bezala, begi okerreaz begiratzeak laguntza bitxia eskaini zion. Egia da gauzaren ohiko kontzeptua une oro egokitzen zaiola gauza bakoitzari. Halere, ez du jasotzen bere oratzearekin baden gauza, erasotzen baizik.

Ekidin al daiteke gisako eraso bat, eta nola? Bai, eta bakarrik, baldin guk gauzari orobat leku ireki bat segurtatzen badiogu, era horretan bere gauza-izaera zuzenean azal dezan. Gauzari buruzko ulermoldean eta adierazpenean gauzaren eta gure artean legokeen oro baztertu egin behar da lehenbizi. Orduan azkenik jarri gaitezke gauzaren presentzia aldatu gabearen eskutan. Baina gauzarekiko zuzeneko topo egite hori ez daukagu ez eskatu, ez antolatu beharrik. Berez gertatzen da aspaldidanik. Ikusmenak, entzumenak eta ukimenak ekartzen digutenean, kolorezko, doinuazko, lakarrezko, gogorrezkoaren sentsazioetan gauzek, zehatz esanda, gorputzean erasotzen gaituzte. Gauza da\_\_\_\_\_, sentsazioen bidez sentikortasunaren zentzuetan jaso daitekeena. Hortaz, geroago ohiko egingo da gauzaren kontzeptu hura, alegia: zentzuetan gertatzen den aniztasunaren batasuna baino ez dela gauza. Batasun hori batuketa gisan edo osotasun gisan edo irudi bezala hartu behar ote den, horrek ez du ezer aldatzen gauzaren kontzeptu honen ezaugarri erabakigarrian.

Hala bada, gauzaren gauzatasunaren ulermolde hau aurrekoa bezain zuzena eta egiaztagarria da uneoro. Aski da hori bere egitasuna zalantzan jartzeko. Gogoan hartzen badugu guztiz bila gabiltzena, gauzaren gauza-izaera, orduan gauzaren kontzeptu honek nahasturik uzten gaitu berriro. Sekula ez dugu sumatzen, gauzen azaltzean lehenbizi eta bereziki sentsazio aldra bat, adibidez doinuak eta zaratak, baizik guk tximinian entzuten dugu ekaitza txistuka, hiru motoreko hegazkina

entzuten dugu, Mercedes bat entzuten dugu bertatik Adler batetik bereziz. Sentsazio guztiak baino hurbilago dauzkagu guk gauzak. Etxeko atea entzuten dugu kolpeka eta ez dugu sekula entzuten entzumenezko sentsaziorik edo zarata soilik. Zarata soil bat entzuteko, gauzetatik aparte entzun behar dugu, gure belarria handik apartatu, hau da: abstraktuki entzun egin behar dugu.

Gauzei beren iraunkortasuna eta irmotasuna ematen diena, baina orobat beren oldar sumagarriaren era, kolorea, ozena, gogorra, sendoa dakarrena, gauzaren gaiezkoa da. Gauzaren finkatze honetan gai (┌) den aldetik, forma (┐) ere batera jarria dago. Gauza baten iraunkortasuna, trinkotasuna, gai bat forma batekin batera egotean datza. Gauza forma duen gai bat da. Gauzak bere itxuraren bidez (┌┐) gu erasotzen gaituen bertatik bertako itxurari erantzuten dio gauzaren ulermolde honek. Gaiaren eta formaren sintesiaren bidez aurkitu da azkenik naturako gauzei eta erabilerako gauzei berdin egokitzen zaien gauzaren kontzeptua.

Gauzaren kontzeptu honek prest jartzen gaitu artelaneko gauza-izaerari buruzko galderari erantzuteko. Obrako gauza-izaera hura osatzen duen gaia da, noski. Gaia da oinarria eta esparrua eraketa artistikorako. Baina egiaztapen argigarri eta ezagun hau hasieratik bertatik aurkez genezakeen. Zertarako hartu dugu oraindik baliozko diren gauzen kontzeptuetan zehar doan zeharbidea? Gauza gai formatu bezala aurkezten duen gauzaren kontzeptuarekiko ere fidagaitz ginelako.

Baina, hain zuzen ere gaia-forma kontzeptu bikote hau ez al da erabilgarria, gu mugituko garen esparruan? Bai horixe. Gaiaren eta formaren bereizkuntza da, eta hain zuzen ere jokamolde guztietan, *kontzeptu-eskema erabat arteko eta estetikako teoria guztietarako*. Baina eztabaidarik ez duen egitate honek ez du frogatzen ez gaiaren eta formaren bereizkuntza behar adina oinaturik dagoenik, ezta jatorriz artearen eta artelanaren esparrukoa denik ere. Gehiago oraindik: kontzeptu pare honen baliozkotasun esparrua ere aspaldidanik asko zabaltzen da estetikaren alorraz gaindi. Forma eta edukia azpian guztia eta bakoitza har ditzaketen kontzeptu orokorrak dira. Baldin arrazionalaren mende jartzen bada forma eta ir-razionalaren mende gaia, baldin arrazionala logikotzat hartzen bada eta irrazionala alogiko bezala, baldin forma-gaia kontzeptu bikotea subjektu-objektu erlazioarekin uztartzen bada, orduan aurkezpenak izango du eskura inork aurre egingo ez dion moduko kontzeptu mekanika bat.

Baina gauzak horrela badaude gaiaren eta formaren bereizkuntzari dagokionean, nolatan ulertuko dugu haien laguntzaz gauza soilen esparru berezia gainerako enteetatik bereziz? Halere, beharbada gaiaren eta formaren araberako ezaugarritzatzeak berriro bere indar erabakigarria irabaz dezake, baldin guk kontzeptu hauen zabaltzea eta hustutzea indargetuko bagenu. Jakina, baina horrek aurretik emantzat jotzen du guk badakigula badenaren zein alorretan betetzen duen bere benetako indar erabakigarria. Hori gauza soilen alorra ote den, uste bat baino ez da orain artean. Estetikan egitura kontzeptual honen erabilera emankorrari buruzko aipamenak eraman gintzake agian pentsatzera, ezen gaia eta forma artelanaren esentziaren definizio jator direla eta handik

ondoren gauzara erakarriak izan zirela. Gauzaren gauza-izaeran edo artelanaren obra-izaeran, non dauka bere jatorria gaia-forma egiturak?

Mugitzen ez den granitozko blokea gaiezko zerbait da forma jakin batean, forma egituraturiko batean ez bada ere. Formak hemen adierazten du gaiaren zatien banaketa eta eraketa leku eta espazioan, ondorio gisa ingurumen berezi bat, bloke batena alegia, dakartena. Baina forma batean dagoen gaia da orobat txarroa, da aizkora, dira oinetakoak. Hemen, gainera, forma, ingurumen den aldetik, ez da gai banaketa baten ondorio. Alderantziz, formak finkatzen du gaiaren eraketa. Ez bakarrik hori: alde aurretik erabakitzen du aldioro gaiaren eraketa eta hautaketa: iragazgaitza txarrorako, nahikoa gogorra aizkorarako, irmoa eta orobat malgua zapatetarako. Txarroa, aizkora, oinetakoak zertarako erabiliko diren, horren bidez geratzen da arauturik alde aurretik hemen agintzen duen formaren eta gaiaren uztarketa. Gisako baliagarritasuna ez zaie izendatzen ez ezartzen gerora txarroaren, aizkoraren, oinetakoen gisako enteei. Bestalde hori ez da helburu bezala non edo han gainean hegatan dabilen ezer.

Baliagarritasuna da oinarrizko ezaugarria nondik baden horrek begiratzen digun, hau da, distiratzen digun eta horrela presente dagoen eta horrela baden hau den. Gisako baliagarritasunean oinarritzen dira bai formaketa bai harekin alde aurretik egin beharreko gaiaren hautaketa eta horrekin batera gaiaren eta formaren egituraketaren nagusigoa. Haren azpian dagoen entea, prestaketa baten emaitza da. Emaitza zerbaitetarako tresna bezala prestatua izango da. Horregatik, gaia eta forma entearen finkatze bezala tresnaren esentzian daude bertakotuak. Izen honek berariaz erabilerarako eta usadiorako prestatua izendatzen du. Gaia eta forma ez dira inondik ere gauza soilaren gauzatasunaren jatorrizko zehaztapen.

Tresna, adibidez zapata, buruturiko bezala, gauza soil gisan datza berez, baina ez dauka granito blokeak bezala berezkotasun hura. Bestalde tresnak erakusten du ahaidego bat artelanarekin, gizakiaren eskuz sortua den neurrian. Halere artelanak, bere presentzia asebetearen bidez, antz gehiago du berezko eta ezertara behartu gabeko gauza soilekin. Hala eta guztiz ere, ez ditugu sartzen obrak gauza soilen artean. Oro har, erabilerako gauzak ditugu hurkoen eta egiazkoenak gure inguruan. Hala tresna da erdi gauza, gauzatasunaren bidez zehaztua dagoelako, eta halere gehiago ere bada; une berean da erdi artelan eta halere gutxiago, ez duelako artelanaren asebetetasunik. Tresnak erdiko egoera propio bat dauka gauzaren eta obraren erdian, emanik gisako sailkapen konpentsatzailea zilegi dela.

Tresnaren izatea lehenbizikoz finkatzen duen gaia-forma egitura ordea, izan baden ooren zuzeneko osaketa ulergarritzat eskaini ohi da oso erraz, hemen hura osatzen duen gizakiak berak horretan parte-hartzen duelako, tresna izatera iristen den moduari dagokionean alegia. Tresnak gauza soilaren eta obraren bitartean erdiko egoera hartzen duen neurrian, normala da tresna izatearen (gaia-forma egituraren) laguntzaz tresna-izaera ez duen badena bera, gauzak eta obrak eta azkenik baden oro ere ulertzea.

Gaia-forma egitura ente bakoitzaren eraketatzat hartzeko joerak alde aurretik bultzada berezi bat jasotzen du sineste batengatik, biblikoagatik alegia, badenaren osotasuna sortu bezala, hau da: hemen egintza bezala, aurkeztu delako. Sineste horren filosofiak ziurta dezake noski, Jainkoaren egintza sortzaile oro artisau baten jarduna ez bezala azaldu behar dela. Baldin, ordea, une berean edo are alde aurretik bibliaren ulermenerako filosofia tomistaren sinesmenezko predestinazio baten ondorioz, ens creatum materia eta formaren batasunaren arabera pentsatua bada, orduan sinesmena filosofia baten arabera da azaldua, haren egiazkotasuna sinesmenean sinetsiriko mundua ez bezalako entearen desezkututasunean datzalarik.

Sinesmenean oinarritzen den sorkuntzari buruzko pentsamenduak gal dezake, noski, badenari buruzko jakitaterako bere indar gidatzailea bere osoan. Halere, behinola ipinitako, filosofia arrotz bati mailegatutako baden ororen ulermolde teologikoa, munduaren ikuspegia gaiaren eta formaren arabera alegia, gera daiteke oraindik. Hala gertatzen da Erdi Arotik Aro Berrirako igaroan. Garai honetako metafisika oinarritzen da Erdi Aroan bezala moldaturiko forma-gai egituran, honek bere aldetik hitzetan bakarrik gogorarazten duelarik \_\_\_\_eta \_\_-ren esentzia galdua. Hala gaiaren eta formaren araberako gauzaren ulermoldea, Erdi Aroko izaten jarraitzen duela edo Kanten gisako transzendental bilakatzen dela, ohiko eta berezko bihurtu da. Baina ez da horregatik gutxiago, aipaturiko gauzaren gauzatasunaren gainerako ulermoldeen aldean, gauzaren gauza-izatearen kontrako eraso bat.

Dagoeneko gauza egiazkoak gauza soil deitzean jada, agerian geratzen da egoera. «Soil» horrek adierazten du zinez baliagarritasun eta prestakuntza izaera kentzea. Gauza soil tresna moduko bat da, nahiz bere tresna-izateaz erantzitako tresna den. Gauza-izatea datza soberatan geratzen den horretan. Baina hondar hau ez dago propio finkatua bere izaeran. Zalantzazkoa da ea tresna-izaera duen oro kentzeko bidean gauzaren gauza-izaera inoiz agerian jartzen den. Hala, gauza ulertzeko hirugarren modua ere, gaia-forma egituraren bidetik doana, gauzari egindako eraso bezala azaltzen da.

Gauzatasuna finkatzeko aipaturiko hiru moduek gauza ezaugarri-eramale bezala ulertzen dute, sentsazio aniztasun baten batasun bezala, gai formadun bezala. Enteari buruzko egiaren historian zehar, aipaturiko ulermoldeak beren artean uztartu egin izan dira, orain hori gaindituta badago ere. Uztarketa horretan beraietan jarritako hedaketa indartu egin da oraindik, eta hala era berean balio dute gauzari, tresnari eta obrari dagokienez. Hala eratortzen da hortik pentsamolde bat, zeinaren arabera guk ez bakarrik gauzari, tresnari eta obrari buruz banaka, baina baden orori buruz orokorrean pentsatzen dugun. Aspaldi ohiko bihurtu den pentsamolde honek badenaren zuzeneko esperientzia orori aurre hartzen dio. Aurrehartze honek eragozten du dagokion entearen izateari buruzko ezagutza. Hala gertatzen da, ezen nagusi diren gauzaren kontzeptuek gauzaren gauza-izaerarako bidea ez ezik, tresnaren tresna-izaerakoa eta baita obraren obra-izaerakoa ere mozten dizkigutela.

Egitate hau da arrazoia zergatik daukagun gauzari buruzko kontzeptu hauek jakiteko premia, jakite horretan beren iturburuari eta mugarik gabeko harrokeriari bezala bere ebidentziaren itxurari buruz pentsatzeko. Jakite hori premiazkoagoa da oraindik, baldin ahalegintzen bagara gauzaren gauza-izaera, tresnaren tresna-izaera eta obraren obra-izaera agerian jarri eta adierazteko. Horretarako, ordea, gauza bakar bat da beharrezko: pentsatzeko era horri buruzko alde aurretiko eta gaineko iritziak utzirik, gauza, adibidez bere gauza-izatean, bere baitan egoten uztea. Zerk litzateke errazago, badena, bera den badena, izaten soilik uztea baino? Edo egiteko honekin ez al gatoz zailenera, batez ere gisako asmo batek –badena den bezala uztekoa– badenari, entearen kontzeptu aztertu gabeko baten mesedetan, bizkar ematen dion indiferentziaren kontrakoa adierazten badu? Badenarantza jiratu behar gara, harengan haren izateari buruz pentsatu, baina hari horrela orobat bere esentzian atsedean hartzen utzi.

Pentsatzearen ahalegin honek badirudi gauzaren gauzatasuna finkatzeko oposiziorik handiena aurkitzen duela; izen ere, non, bestela, izan dezake bere oinarria aipaturiko ahaleginaren porrotak? Gauza sotilak ihes egiten dio pentsatzeari erarik setatsuenean. Edota gauza soilaren isiltasun hau, ezerezero jotzen eta bere baitan gelditzen den hau, gauzaren esentziakoa ote da? Orduan, gauzaren esentzian dagoen bitxitasun eta itxitasun hura gauza pentsatzen saiatzen den pentsatzearentzat ez da bihurtu behar ohiko? Hala bada, orduan ezin behar dezakegu gauzaren gauza-izaerako bidea.

Gauzaren gauzatasuna bereziki nekez eta gutxitan adieraz daitekeela, horren lekuko ezin gezurtatuzkoa da bere ulermoldeari buruz aipatu den historia. Mendebaleko pentsaerak orain arte badenaren izateari pentsatzeko izan duen patuarekin bat dator historia hau. Baina guk hemen finkatutzat eman baino ez dugu egiten. Historia honetan orobat keinu bat sumatzen dugu. Halabehar bat al da, gauzaren ulermoldean gaiaren eta formaren bidetik joan denak lehentasun berezi bat hartu izana? Gauzaren definizio hori tresnaren tresna-izatearen adierazmolde batetik dator. Baden hau, tresna, era oso berezian dago hurbil gizakiaren irudikapenetik, gure sorkuntza propiotik heltzen baita izatera. Bere izatean baden hain etxeko honek, tresnak, badauka orobat tarteko egoera propio bat gauzaren eta obraren artean. Keinua horri jarraiki, tresnaren tresna-izaera bilatzen dugu lehenbizi. Apika, hortik irekiko zaigu zerbait gauzaren gauza-izaerari buruz eta obraren obra-izaerari buruz. Ekidin behar dugu bakarrik, gauza eta obra azkarregi tresnaren aldagarri bihurtzea. Begien aurrean eduki behar dugu inolaz badirela diferentzia historiko funtsezkoak tresna nola den ulertzeko moduan.

Baina, zein da tresnaren tresna-izaerara daraman bidea? Nola esperimenta dezakezu zer den egiaz tresna? Orain badirudi ohiko ulermoldeen gainkontzeptuek beraiekin dakartzaten ahaleginetatik urrun egon behar duela beharrezko den prozedurak. Horren aurrean erarik seguruenean ziurtaturik geundeke baldin tresna bat inolako teoria filosofikorik gabe deskribatuko bagenu.

Ohiko tresna bat aukeratuko dugu adibide gisan: Baserritarren oinetako pare bat. Haiek deskribatzeko ez dugu behar ere behar gisa horretako tresna erabilgarri horien egiazko alerik batere. Denok ezagutzen ditugu. Baina kontua zuzeneko deskribaketa denez, ongi legoke adibide bat eskaintzea. Lagungarri bezala, aski da irudi bidezko aurkezpen bat. Horretarako gisako oinetakoak sarri margotu zituen van Goghen pintura ezagun bat hautatu dugu. Baina zer dago han hainbeste ikusteko? Denok dakigu zer dagokion oinetakoari. Ez eskalapoia ez alpargatak direnez, hantxe daude larruzko zolak eta zapatagaina, biak josturen eta iltzeen bidez bat eginik. Tresna horrek oinak janzteko balio du. Segun zertarako balio duten, soroetako lanerako edo dantzarako, gaia eta forma bestelakoak dira.

Aipamen zuzen hauek guk lehendik genekiena baino ez dute argitzen. Tresnaren tresna-izatea bere zertarakoan datza. Baina zer gertatzen da zertarako honekin berarekin? Jasotzen al dugu horrekin tresnaren tresna-izaera? Ez al dugu, hori lortuko badugu, tresna baliagarria bere baliagarrian ikertu behar? Emakume nekazariak soroan oinetakoak dauzka. Hasteko, zer diren, hura dira hemen. Hainbat eta egiazkiago izango dira, zenbat eta emakumeak bere lanean horietan gutxiago pentsatzen edo begiratzen edo are sentitzen ere ez baditu. Haietan dago eta haietan dabil. Hala balio dute egiaz oinetakoek. Tresnaren erabileraren ibilbide honetan azalduko zaigu benaz tresna-izaera.

Aldiz, oinetako pare bat oro har gogora ekartzen dugun bitartean, edo irudian han hutsik eta erabili gabe dauden oinetakoak begiztatzen ditugun bitartean, ez dugu esperimentatuko zer den egiaz tresnaren tresna-izatea. Van Goghen pinturaren arabera, ezin dugu jakin ere jakin non dauden oinetako horiek. Nekazari oinetako pare horren inguruan ez dago ezer, zertarako diren edo nongoak diren esateko, espazio zehaztu gabe bat dago bakarrik. Ez dago ezta soroko edo bideko lokatzik ere, horrek zertan erabiltzen diren adieraziko liguke gutxienez. Nekazari oinetako pare bat eta kito. Eta hala eta guztiz ere.

Oinetakoen barne higatuen zulo ilunetik laneko urratsen nekeak begiratzen digu. Oinetakoen astuntasun gogorrean dago atxikia haize garratzak jotzen duen soroko ildo oso luze eta beti berdinetan zehar egiten den ibilera astiroaren seta. Larruan dago lurraren hezetasuna eta asetasuna. Zolen azpian lerratzen da soroko bideko bakardadea ilunabarrean zehar. Oinetakoan dirdaika ari da lurraren dei isildua, heltzen ari den gariaren emanketa isila eta bere hildura argitu ezinezkoa neguko soroaren lurgorri mortuan. Tresna horretan zehar doa ogiaren segurtasunagatik beldur intzirik gabea, premia berriro gainditu izanaren poz mutua, dardara jaiotza iristean eta ikara heriotza inguruan denean. *Lurrarena* da tresna hori eta emakume nekazariaren *munduan* dago gordea. Pertenentzia babestu honen arabera altxatzen da tresna bere baitan atsedean hartzera.

Baina beharbada hau guztia oinetakoei egozten diegu irudian. Emakume nekazariak, bere aldetik, besterik gabe daramatza oinetakoak. Baldin, ordea, eramate soil hau hain soil balitz ere. Emakumeak gauean berandu, unadura gogor baina osasuntsu batez, oinetakoak erantzi eta egunsenti oraindik ilunean berriro eskua botatzen dien bakoitzean, edo jaiegunetan jaramonik egiten ez

dienean, orduan hori guztia daki begira eta miatzen ibili gabe. Tresnaren tresna-izatea bere baliagarritasunean datza noski. Baina hau bera dago tresnaren izate esentzial baten betetasunean. Horri segurantz deitzen diogu. Horri esker dago sartua emakume nekazaria tresna horren bidez lurraren dei isilean, tresnaren segurantz horri esker dago bere munduaz seguru. Mundua eta lurra beretzat eta berarekin bere gisara direnentzat existitzen dira bakarrik han: tresnan. Guk «bakarrik» esaten dugu eta oker gaude horretan; izan ere, tresnaren segurantzak ematen dio mundu soilari bere segurtasun egoera eta ziurtatzen dio lurrari bere etengabeko oldarraren askatasuna.

Tresnaren tresna-izateak, segurantzak, gauza guztiak, bakoitza bere motaren eta zabaleroaren arabera, elkaturik gordetzen ditu. Tresnaren baliagarritasuna da, edozein modutan, segurantzaren funtsezko ondorioa. Hark dirdaitzen du honetan eta hau gabe ez litzateke ezer. Tresna bakoitza gastatu eta ahitu egiten da; baina horrekin batera erabiltzea bera higadura bihurtzen da, andegatu egiten da eta ohiko bihurtzen. Hala tresna-izatea hondamendira dator, tresna soil izatera erasten da. Segurantzaren desagertzea da tresna-izatearen hondamendia. Baina desagertze hau, nori zor dioten gauza erabilgarriek ohikotasun luze eta deigarria, tresna-izatearen jatorrizko esentziaren beste lekuko bat gehiago baino ez da. Tresnaren ohikotasun unatua azaltzen da orduan bere izateko modu bakar eta itxuraz propio soil bezala. Baliagarritasun soilak bakarrik geratzen da agerian. Tresnaren jatorria gai bati forma batek ezartzen dion haren egintza soilean datzan ustea esnatzen du horrek. Hala eta guztiz ere, tresna, bere egiazko tresna-izatean, askoz urrunagotik dator. Gaiak eta formak eta bien arteko bereizkuntzak jatorri sakonagoa dute.

Bere baitan atsedean hartzen dagoen tresnaren atsedena segurantz datza. Hantxe ikusiko dugu lehenbizikoz tresna egiaz zer den. Baina oraindik ez dakigu ezer hasieran bilatzen genuenaz, gauzaren gauza-izaeraz, alegia. Azken batean, ez dakigu benetan eta soilik bilatzen genuen hura: obraren obra-izaera, artelan den aldetik.

Edota, konturatu gabe, bidenabar bezala, zerbait ikasi dugu obraren obratasunari buruz?

Tresnaren tresna-izatea aurkitua dago. Baina nola? Ez benetan aurrean gendukeen oinetako baten deskribaketaren eta argitzearen bidez; ez oinetakoen egintzaren prozedurari buruzko informazio baten bidez; ezta oinetakoaren benetakoa erabilera han eta hemen begiztatuz ere, baizik bakarrik gu van Goghen pinturaren aurrean jarri garelako. Honek hitz egin du. Egoteko ohitura dugun obraren aurrean ez baino beste nonbait egon gara gu.

Artelanak ezagutarazi du oinetakoa egiaz zen den. Geure buruekiko iruzurrik okerrean litzateke baldin usteko bagenu gure deskribaketak, egintza subjektibu bezala, dena era horretan margotu eta gero han jarri duela. Baldin hemen zalantzez bada, hori da soilik guk artelanaren aurrean gutxiegi jakin dugula eta jakindakoa zabarregi eta zuzenegi esan dugula. Baina ezer baino lehen, obrak ez zuen balio, hasieran zirudien bezala, azken batean tresna bat dena zer den hobeto argitzeko. Aldiz obraren bidez eta obran bakarrik azaltzen da berariaz tresnaren tresna-izatea.

Zer gertatzen da hemen? Zerk obratzen du obran? Van Goghen margoa da tresna, oinetako pareak, egiaz zer *den*, horren argitzea. Baden hau bere izatearen desezkututasunera ateratzen da. Badenaren desezkututasunari grekoek \_\_\_\_\_deitzen zioten. Guk egia esaten dugu, baina oso gutxi pentsatzen dugu hitz horrekin. Baldin hemen enterean, bera den eta nola den horretan, argitze bat gertatzen bada, egia gertatze bat dago obratzen obran.

Artearen obran badenaren egia jarri da obratzen. «Jarri» hemen esan nahi du: existi araztea. Baden bat, nekazari oinetako pareak, gertatzen da bere izatearen argitan. Badenaren izatea bere itxuraren iraunkortasunean gertatzen da.

Hala bada, artearen esentzia izango litzateke: badenaren egia obratzen jartzea. Baina orain artean, arteak ederrarekin eta edertasunarekin zeukan zerikusia eta ez egiarekin. Gisako obrak sortzen dituzten arteei, tresna egiten duten eskuzko arteei ez bezala, arte eder deitu ohi zaie. Arte ederrean ez da eder artea, baizik horrela deitzen da ederra sortzen duelako. Egia, aldiz, logikari dagokio. Edertasuna, ordea, estetikarako gordetzen da.

Edota, artea egia-obratzen-jartzea proposizioarekin harako artea egiazkoaren imitazio eta aldakia omen dela dioen iritzi zorionez gaintitua berpiztu nahi da? Existitzen denaren erreproduzioak badenarekin egokitzea, harekin doitzea eskatzen du inolaz; *adaequatio* esaten du Erdi Aroak; \_\_\_\_\_esaten du dagoeneko Aristotelesekin. Badenarekin egokitzea jo ohi da aspaldidanik egia gertatzearekin. Baina zer uste dugu, van Goghen pintura hark existitzen den nekazari oinetako pare bat pintatzen duela eta hori lortu duelako dela obra bat? Uste dugu pinturak egiazkotik irudi bat ateratzen duela eta hori artezko... produkzioko emaitza batera aldatzen duela? Inondik ere ez.

Beraz, obran kontua ez da aldioro existitzen den baden bakoitzaren erreproduzioa, baizik aldiz gauzen esentzia orokorraren erreproduzioa. Baina non eta nola dago, bada, esentzia orokor hori artelanean harekin egokitu dadin? Zein gauzaren zein esentziaz egokitu behar du tenplu greko batek? Nork adieraz lezake ezinezkoa, alegia eraikuntzan tenpluaren ideia legokeela adierazia? Eta, hala eta guztiz ere gisako obran, baldin obra bat bada, egia dago obratzen jarria. Edo pentsa dezagun Hölderlinen «Rhin» ereserkian. Zer eta nola eman zaio aurrez poetari, ondoren poemaren erreproduzi dezan? Ereserki honen eta antzeko poemaren kasuan uka badaiteke ere nabarmen egiazko baten eta artelanaren arteko aldaki-erlazio baten ustea, C. F. Meyer-en «Erromako iturria» bezalako obra baten bidez erarik onenean egiaztatzen da obrak kopiatu egiten duen iritzia.

*Erromako iturria*

Igotzen da zurrusta eta erortzean isurtzen da

betez marmorezko aska borobila,

hau, hura estaliz, gainezka doa

bigarren aska baten sakonera;

bigarrenak damaio, oparoegi baita,  
hirugarrenari borborka bere uhina,  
eta bakoitzak hartu eta ematen du aldi berean  
eta zurrustaka erortzen da eta atsedean hartzen du.

Hemen ez da margotzen poetikoki lehendik egiaz bazegoen iturri bat, ezta aldatzen ere Erromako iturri baten esentzia orokorra. Baina egia obratzen jarri da. Zein egia agitzen da obran? Egia agi al daiteke eta horrela historiko bihurtu? Egia, hala esan ohi da, denborarik gabeko eta denboraz gaindiko zerbait omen da.

Artelanaren egiazkotasuna bilatzen ari gara, han egiazki haren baitan dagoen artea aurkitzeko. Obran, hurrengo, egiazko bezala gauza-izaerako azpiegitura agertu zen. Baina gauza-izaera hau ulertzeko, ez dira aski gauzaren kontzeptu tradiziozkoak; hauek, izan ere, gauza-izaeraren esentzia huts egiten dute. Lehenago nagusi zen gauzaren kontzeptua, gauza gai formaduna bezala, ez da eratorria gauzaren esentziatik, tresnaren esentziarik baizik. Bestalde, agerian geratu zen aspaldidanik jada, tresna-izateak badenaren ulermoldean berezko lehentasuna esan nahi duela. Hala eta guztiz ere, tresna-izatearen lehentasun berariaz pentsatu gabe honek eman zuen tresna-izaerari buruzko galdera berriro egiteko aukera, baina ohiko ulermoldeak alde batera utziz.

Tresna zer den, obra baten bitartez esan zitzaigun. Horren bidez etorri zen argitara, esateko eskupean, obrak zerk obratzen duen: badenaren irekiera bere izatean: egiaren jazoera. Baldin, ordea, obraren egiazkotasuna obran obratzen duenaren bidez baino zertu ezin bada, zer gertatzen da orduan egiazko artelana bere egiazkotasunean bilatzeko genuen asmoarekin? Oker genbiltzan obraren egiazkotasuna gauza-izaerako azpiegitura hartan uste genuen bitartean. Orain gure gogoeten ondorio harrigarri baten aurrean gaude, baldin hau ondorio dei badaiteke. Gauza bikoitz bat geratuko da garbi:

Lehenbizi: gauza-izaera obran sumatzeko baliabideak, nagusi diren gauzaren kontzeptuak ez dira aski.

Bestetik: horrekin obraren hurrengo egiazkotasun bezala sumatu nahi genuena, gauza-izaerako azpiegitura, ez da era horretan obrarena.

Gisakorik obran sumatu nahi dugun orduko, konturatu gabe obra tresna bezala hartu dugu eta arte-izaera eduki behar duen gainegitura bat ezartzen diogu. Baina obra ez da inondik ere tresna bat, gainera hari atxikitzen zaion balio estetiko batez horniturik dagoena. Hori ez da inolaz obra bat, gauza soila bere tresna izaera propioa, baliagarritasuna eta fabrikazioa, kendu zaion tresna ez den bezala.

Obrari buruz genuen gure planteamendua jota geratu da, guk ez baiguen galdetzen obrari buruz baizik zati batean gauza bati buruz eta beste zati batean tresna bati buruz. Baina hori ez zen

guk hasieran garatzen genuen planteamendu bat. Estetikaren planteamendua da hori. Baden ooren tradiziozko ulermoldearen mende dago honek artelana alde aurretik begiratzeko daukan modua. Halere, ohiko planteamendu honen haustea ez da funtsezkoena. Kontua da, badagoela begiradaren lehen irekitze bat honetarako, alegia: obraren obra-izaera, tresnaren tresna-izaera, gauzaren gauza-izaera hurbilago datorkigula, badenaren izatea pentsatzen dugunean. Horretarako beharrezko da alde aurretik ebidentziaren mugak erori eta ohiko azaleko kontzeptuak albora gera daitezen. Horretarako zeharbide bat egin behar izan dugu. Baina horrek orobat obran dagoen gauza-izaeraren zehaztapen batera eraman gaitzakeen bidera eramaten gaitu. Gauza-izaera obran ez da ukatu behar; baina gauza-izaera hau, baldin jada obraren obra-izatearena bada, obra-izaeratik pentsatu behar da. Hala bada, obraren gauza-izaerako egiazkotasunaren zehaztapenerako bidea ez doa gauzan zehar obrara, baizik obran zehar gauzara.

Artelanak bere erara irekitzen du badenaren izatea. Obran jazotzen da irekitze hori, hau da desestaltzea, hau da badenaren egia. Artelanean jarri da obratzen badenaren egia. Artea da egiaren obratzen-jartzea. Zer da egia bera, alditan ate bezala jazotzen denez? Zer da obratzen-jartze hori?

### *Obra eta egia*

Artelanaren jatorria artea da. Baina zer da artea? Egiaz artea artelanean dago. Horregatik bilatzen dugu lehenbizi obraren egiazkotasuna. Zertan datza? Artelanean oro har, nahiz era guztiz desberdinetan, gauza-izaera erakusten dute. Obraren gauza-izaera hau gauzaren ohiko kontzeptuez ulertzeko ahalegina hutsean geratu zen. Ez bakarrik gauzaren kontzeptu hauek gauza-izaera oratzen ez dutelako, baizik eta guk obra bere gauza-izaerako azpiegiturari buruzko planteamenduarekin behartzen dugulako aurrerapen batera, zeinaren bidez obraren obra-izaterako irisbidea gaizki eraiki dugulako. Obrako gauza-izaerari buruz ezin erabaki daiteke, obraren bere baitan egotea garbi azaltzen ez den bitartean.

Baina obra berez sekula atzemangarria al da? Ondo ateratzekotan, beharrezko litzateke bera ez den guztiekiko harreman guztietatik ateratzea, berari bere baitan atsedean hartzen uzteko. Baina hara doa jada artistaren asmoa. Obrak haren bidez bere baitan egote soilean utzia izan behar du. Arte handian hain zuzen, eta hari buruz bakarrik dihardugu hemen, obrari dagokionez artistari indiferentzia moduko bat geratzen zaio, kasik sorkuntzan bere burua desegiten duen pasabide bat bezala obraren sorbiderako.

Hala daude eta zintzilik egon obra beraiek bildumetan eta erakusketetan. Baina hor daude berez diren obra bezala, ala daude gehiago arte zerbitzuko objektu bezala? Guztien eta bakoitzaren arte gustuaren esku jarriak daude obrak. Leku ofizialek hartzen dute beren gain obrak zaintzea eta gordetzea. Arte adituek eta arte arbitroek saiatzen dira haiekin. Arte komertzioak bere esku hartzen du merkatua. Arte historiaren ikerkuntzak jakintzagai bihurtzen ditu obrak. Baina joanetorri anitz horietan, trikitx egiten al dute obrek gurekin?

«Egineteak» Münchenerko bilduman, Sofoklesen «Antigona» argitalpen kritiko onenean, berez diren obra bezala beren bizigune propiotik erauziak izan dira. Beren maila eta emozio indarra nahi bezain handia izan daiteke, beraiekiko ardua nahi bezain ona, beraien ulerkera nahi bezain segurua, bildumara aldatzeak beren mundua erantzi die. Baita saiatzen bagara ere obren lekualdatze hori ezeztatzen edo ekiditen, guk adibidez Pestumgo tenplua bere lekuan eta Bambergeko katedrala bere plazan bilatzen dugularik, existitzen diren obren mundua galdua da.

Mundukentzea eta mundugaltzea erremediorik gabeko dira. Obrak ez dira gehiago lehen zirenak. Berberak dira, noski, gurekin trikitx egiten dutenak, baina berberak dira izan zirenak. Izan zirenak bezala azaltzen zaizkigu tradizioaren eta kontserbazioaren esparruan. Aurrerantzean gisa horretako objektu baino ez dira. Beraien parez-pare egotea lehenagoko beren baitan egotearen ondorio bat da, noski, baina ez da gehiago hori bera. Hori beraiengandik ihes egina dago. Arte zerbitzu oro, nahiz mailarik goreneneraino jaso eta obraren beraren zerbitzurako dena egin, obraren objektu-izateraino bakarrik iristen da. Baina horrek ez du moldatzen bere obra-izatea.

Baina orduan oraindik obra obra da, harreman guztietatik aparte dagoenean ere? Ez dagokio obrari, harremanetan egotea? Edozein modutan, zein erlaziotan dagoen galdetzea geratzen da soilik.

Nori dagokio obra bat? Obra, obra den aldetik, bere bitartez irekiko den esparruari dagokio bakarrik. Izan ere, obraren obra-izatea izan da gisako irekieran bakarrik. Obran egiaren jazotzeak obratzen duela, esaten genuen. Van Gogh-en irudiaren erreferentzia jazotze hori izendatzen saiatzen zen. Horri dagokionez sortu zen galdera ea zer den egia eta nola jazo zitekeen egia.

Orain jartzen dugu egiaren galdera obrari dagokionez. Galderaren barruan dagoena ezagut dezagun, ordea, beharrezko da egiaren jazotzea obran berriro agerian ipintzea. Ahalegin honetarako, berariaz hautatu dugu obra bat, irudizko artekotzat jotzen ez dena.

Eraikuntza bat, tenplu greko bat: ez du ezer irudikatzen. Hantxe dago, besterik gabe, ibar harritsu malkar baten erdian. Eraikuntzak jainkoaren irudia inguratzen du eta hau estalpe horretan pilaredun aretoan zutik dago esparru sagaratuan. Tenpluaren bidez dago presente jainkoa tenpluan. Jainkoaren presentzia hau berez da esparruaren zabaltzea eta mugatzea, sagaratu den aldetik. Tenplua eta bere esparrua ez dira kulunkatzen indeterminatuan. Tenpluak ezer baino lehen uztartu eta orobat biltzen du bide eta erlazio horien batasuna, haietan jaiotzak eta heriotzak, zoritxarrak eta onspenak, garaipenak eta laidoak, iraupenak eta hondamendiak... gizakiarentzat bere gaitasunaren irudia hartzen dutelarik. Erlazio ireki honen zabaltasun eragilea da herri historiko honen mundua. Harengandik eta harengan itzultzen da herria bere baitara bere patuaren gauzatzeko.

Zutik dago eraikuntza harkaitzez inguraturiko ibarrean. Obraren atsedean hartze honek harkaitzetik jasate zabar eta ezerezera beharturikoaren iluntasuna erauzten dio. Zutik aurre egiten dio eraikuntzak erasotzen dion ekaitzari eta hala ekaitza bera ezer baino lehen bere mendean agertzen du. Harkaitzaren distirak eta dirdaitasunak, dirudieneguzkiaren graziaz bakarrik, ezer

baino lehen egunaren argia, zeruaren zabaltasuna, gauaren iluntasuna jartzen dituzte agerian. Tontor seguruak haizearen espazio ikusi ezinezkoa agerian jartzen du. Obraren irmotasuna urrun dago itsasaldiko uhinen aldean eta bere atsedenen bidez haren astintzea agerian jartzen du. Arbola eta belarra, arranoa eta zezena, sugea eta kilkerra beren irudi jasora iristen dira eta beraiek zer diren, hala jartzen dira agerian. Sortze eta erretze hau bera era orokorrean oso goiz deitu zuten \_\_\_\_\_grekoek. Horrek agitzen du gizakiak bere bizilekua non eta zertan oinarritzen duen. Guk *Lur* deitzen dugu.

Hemen hitzak esan nahi duenetik urrun eduki behar da bai gai multzo pila baten irudikapena, bai planeta baten irudikapen astronomikoa ere. Erretzen den ororen erretzea gertatzen den lekua da lurra eta hala den aldetik berriro aterpetzen duena. Erretzean existitzen da lurra aterpetzaile bezala.

Tenpluak han zutik mundu bat eraikitzen du eta berriro lurraren gainean ipintzen du, hau, era horretan, jatorrizko orube bezala azaltzen delarik. Sekula, ordea, daude presente eta ezagutzen dira gizakiak eta abereak, landareak eta gauzak objektu aldatu ezinezko bezala, ondoren bidenabar egunen batean presente dagoenari gaineratuko zaion tenpluarentzat ingurune egokia eratzeko. *Den* horretara hurbilagotzen gara dena alderantziz pentsatzen dugunean, emanik noski guk begirada izan dezagun ikusteko nola dena beste era batera guregana itzultzen den. Itzultze soilak, berez bakarrik, ez du ezer ematen.

Tenpluak bere zutik egotean gauzei ezer baino lehen beren aurpegia ematen die eta gizakiei ezer baino lehen beren buruekiko ikuspegia. Obra obra den bitartean, jainkoak handik ihes egiten ez duen bitartean irauten du ikuspegi honek irekita. Gauza bera gertatzen da jokoetako garaileak sagaratzen dion jainkoaren estatuarekin ere. Ez da kopia bat, haren bidez jainkoak zelako itxura duen errazago ezagutzeko, baizik obra bat da, jainkoa bera presente bihurtzen duena edo horrela jainkoa bera *dena*. Gauza berak balio du hitzezko obrari dagokionez ere. Tragedian ez da errepresentatzen ez antzesten ezer, baizik borrokatu egiten da jainko berrien borroka antzinakoen kontra. Hitzezko obra herriko legendan sortzen delarik, ez du kontatzen borroka hau, baizik herriko legenda eraldatzen du, eta orain funtsezko hitz bakoitza borroka hori egiten ari da eta erabaki beharrean jartzen du zer den santu eta zer ezsantu, zer handi eta zer txiki, zer adoretu eta zer koldar, zer noble eta zer iragankor, zer jaun eta zer morroi (erk. Heraklito, 53. zatikia).

Zertan datza, orduan, obraren obra-izatea? Orain artekoan nahikoa zabar adierazia etengabe begien aurrean edukiz, hasteko ipini ditzagun nabarmenago obraren bi ezaugarri funtsezko. Horretarako, abia gaitzen aspaldi ezaguna dugun obra-izatearen ebidentziatik, obrarekiko gure ohiko jokamoldeari oinarri bat ematen dion gauza-izaeratik.

Obra bat bilduma batean sartua edo erakusketa batean ipinia denean, esan ohi da jaso izan dela. Baina jasotze hau nabarmenki bestelakoa da harako jasotzearen aldean, alegia eraikuntza baten eraikitzearen, estatua bat ezartzearen, jaialdian tragedia bat aurkeztearen zentzuan. Gisako jasotzea eraikitze bat da, sagaratu eta gorespen bezala. Jasotzeak ez du adierazten hemen jartze hutsa.

Sagaratu santutu esan nahi du honako zentzuan, alegia: obrazko eraikuntzan santua santu den aldetik irekitzen dela eta jainkoa bere presentziaren irekian deitua izango dela. Sagaratzeari dagokio gorespena jainkoaren duintasunaren distiratzea estimatzea bezala. Duintasuna eta distira ez dira tasun batzuk, zeintzuen ondoan eta ostean oraindik jainkoa bera ere badagoen, baizik duintasunean, distiran jainkoa dago presente. Distira honen dirdaian distiratzen du, hau da guk mundua deitzen genuenak argitzen du. Eraikitzea esan nahi du: esentzialak, neurri den aldetik egiten dizkigun oharpideen arabera zuzentasuna agerian jartzea. Zergatik da, ordea, obra eraikitzea ezartze sagaratzaille eta loriazko bat? Obrak bere obra-izatean hori eskatzen duelako. Nola iristen da obra gisako jartze baten eskakizunera? Bera bere obra-izatean eraikitzaile delako. Zer eraikitzen du obrak obra den aldetik? Bere hartan altxatuz obrak *mundu* bat irekitzen du eta hau iraupen agintzailean eusten du.

Obra-izatea esan nahi du: mundu bat eraikitzea. Baina zer da, mundu bat? Tenpluari buruz mintzatzean, adierazi da. Guk hemen egin behar dugun bidean adierazi baino ez da egiten munduaren esentzia. Are, adierazte hori hasteko ikuspegi esentzuala oker lezakeena eragoztera mugatzen da.

Mundua ez da eskura dauden gauza zenbagarri eta zenbatu ezinezko, ezagun eta ezezagunen pilaketa soila. Mundua, ordea, ez da esparru imajinatu bat, existitzen direnen pilarako irudikaturikoa. *Mundua mundutzen da* eta gu etxeko garelako uste dugun oragarria eta sumagarria baino existenteago da. Mundua ez da objektu bat, gure aurrean dagoena eta begiratu daitekeena. Mundua da beti objektiba ezinezkoa, gu haren azpian gaudelarik, jaiotzaren eta heriotzaren, bedeinkazioaren eta madarikazioaren bideek gu izatean bahituta gauzkaten artean. Gure historiako erabaki esentzialak, guk onartuak edo utziak, zapuztuak eta berriro eskatuak, datozen lekuan, han mundutzen du munduak. Mundurik gabea da harria. Landareek eta abereek ere ez dute mundurik batere; baina bera zintzilik dagoen ingurumarirako oste ezkutukoak dira. Aldiz, emakume nekazariak mundu bat dauka, bera badenaren irekian dagoelako. Tresnak bere segurantzaren bere premiazkotasun eta hurbiltasun propioa ematen dio mundu honi. Mundu bat irekitzen denean, gauza guztiek hartzen dute beren unea eta presa, beren urruntasuna eta hurbiltasuna, beren zabaltasuna eta estutasuna. Mundutzean bildurik dago gune hura, nondik jainkoen ongini babeslea emana edo ukatua den. Jainkoaren urruntzearen zoritxarra munduaren mundutzearen era bat da.

Obra batek, obra den aldetik, leku egiten dio gune hari. Leku egiteak hemen esan nahi du bereziki: irekiaren librea libratzea eta libre hori bere ezaugarrietan antolatzea. Antolatze hau aipaturiko eraikitzeagatik existitzen da. Obrak, obra denez, mundu bat altxatzen du. Obrak munduaren irekia irekita edukitzen du. Baina mundu baten eraikitzea hemen aipatu beharreko obraren obra-izatearen ezaugarri esentzietako bat da bakarrik. Bestea, eta hari dagokiona, era berean obraren ebidentziari jarraiki begien aurrean jartzen saiatuko gara.

Obra bat, materia honetakoa edo bestekoa –harria, egurra, brontzea, kolorea, hizkuntza, tonua– sortua denean, esan ohi da hartaz egina dela. Baina obrak eraikitze bat, ezartze sagaratzaille eta

loriazkoaren zentzuan, eskatzen duen bezala, hala berean lanketa ere beharrezko izango du, obraren beraren obra-izateak lanketaren izaera daukalako. Obra obra den aldetik bere esentzian lantzaile da. Baina zer lantzen du obrak? Hori jakingo dugu obraren lanketa ebidente delakoa iker dezagunean.

Obra-izateari datxekio mundu baten eraikuntza. Noren esentziako da, zehaztapen horren horizontean, obran dagoen hura, bestela gai deitu ohi dena? Tresnak hartzen du, baliagarritasunak eta erabilgarritasunak zehazturik dagoelako, bera osatzen duena, gaia, bere zerbitzuan. Harria, tresna egitean, adibidez aizkora, erabilia eta suntsitua da. Baliagarritasunean desagertzen da. Gaia hainbat eta hobe eta egokiagoa da, zenbat eta gogortasun gutxiagoarekin tresnaren tresnaizatean galtzen den. Tenplu-obrak, aldiz, mundu bat eraikitzen duenez, ez dio uzten gaiari desagertzen, baizik ezer baino lehen agerrarazten du, eta hain zuzen ere obraren munduaren irekian: haitza eustera eta atsedean hartzera iristen da eta horrela haitz bihurtuko da ezer baino lehen; metalak distiratzeko eta dirdaitze bihurtzen dira, koloreak argitze, tonua ozentze, hitza esate. Guzti hori agertzen da obra harriaren trinkotasunean eta astintasunean, zuraren irmotasunean eta malgutasunean, brontzearen gogortasun eta distiran, kolorearen argitzean eta iluntzean, tonuaren ozentasunean eta hitzaren adierazkortasunean gibeleratzen den bitartean.

Lurra deitzen genuen obra gibeleratzen den lekua eta gibeleratze horretan azaltzen dena. Bera da agerrarazle estaltzailea. Lurra da ezerezero bultzaturiko nekagaitza eta aspergabea. Lurraren gainean eta lurrean oinarritzen du gizaki historikoak bere bizitza lurrean. Obrak lur bat eraikitzen duenez, lurra egin egiten du. Egitea hemen hitzaren zentzu hertsian pentsatu behar da. Obrak mundu baten irekian jartzen eta eusten du lurra bera. *Obrak lurrari lur izanarazten dio.*

Baina zergatik jazo behar du lurraren egite honek halako moduan non obra hartan gibeleratzen den? Zer da lurra era horretan desestali irits dadin? Harriak pisua dauka eta bere astuntasuna aldarrikatzen du. Baina pisu hori gugana datorren bitartean, ukatu egiten digu une berean bere barrura sartzea. Horretan haitza puskatuz saiatzen bagara, orduan bere zatietan ez du azaltzen barne eta ireki bat. Segituan harria berriro itzuli egiten da bere zatien pisutasunaren eta trinkotasunaren zurruntasun berera. Beste bide batetik, harria pisuan jarriz, hori erdiesten saiatzen bagara, orduan astuntasuna bakarrik daramagu bere zamaren kalkulura. Harriaren zehaztapen beharbada oso zehatz hau zenbaki bat baino ez da, baina pisutasunak ihes egin digu. Koloreak distiratu egiten du eta distiratu baino ez du egin nahi. Guk zuhurkiro neurtuz dardara zenbakitan zatitzen badugu, kito da. Bera azaltzen da bakarrik, desestali gabe eta argitu gabe dagoenean. Lurrak berarekiko eraso oro bere kontra txikitzen du. Kalkuluaren bidez soilik egindako jakin-nahi gehiegizko oro hondamendi bihurtzen du. Nahi izanez gero nagusigo eta aurrerakuntzaren traza izan dezake, naturaren objektibitate tekniko zientifiko baten itxuran, halere nagusigo hori nahimenaren ezintasun da inondik ere. Lurra, bera den bezala, nabarmen argiturik azaltzen da bakarrik, funtsezko deskubriezin bezala sumatzen eta gordetzen denean, deskubritze ororen aurrean atzera egiten duen bezala, hau da: beti itxita dagoenean. Lurreko gauza guztiak, lurra bera bere osoan, txandakako harmonia batean linburtzen dira. Baina linburtze hau ez da inolako ezabatze bat. Hemen presente oro bere presentean

mugatzen duen kanpozedarritzean berez datzan korrontea linburtzen da. Hala, ixten den gauza orotan bere-burua-ez-ezagutze bera dago. Lurra da esentzialki bera-ixten dena. Lurra egitea esan nahi du: hura irekita eramatea, bera ixten dena den aldetik.

Lurraren egite hori erdiesten du obrak, bera lurrera gibeleratzen denean. Lurraren bera-ixtea, ordea, ez da estalita geratze beti berdin eta zurrun bat, baizik azaltzen da era eta irudi sotil multzo ahituezin batean. Eskultoreak egiaz harginak ere bere erara erabiltzen duen bezala erabiltzen du harria. Baina ez du suntsitzen. Honek balio du hein batean obrak huts egiten duen lekuan bakarrik. Egiaz pintoreak ere erabiltzen du pintura, baina kolorea ez suntsitzeko eran, argitasunera eramanez baizik. Egiaz poetak ere erabiltzen du hitza, baina ez ohiko hizlariak ez idazleak hitzak suntsitzen dituzten bezala, baizik hitza ezer baino lehen hitz bihurtzeko eta hala irauteko eran.

Obran existitzen ez da inon ezer materialetik. Zalantza egitekoa ere bada ea tresnaren esentzia zehaztean, tresna osatzen duen hura gai bezala zertzeak bere tresnazko esentzian jotzen duen.

Mundu baten eraikitzea eta lurraren egitea bi funtsezko ezaugarri dira obraren obra-izatean. Baina biak batera obra-izatearen batasuneko dira. Batasun hori bilatzen dugu obra bere hartan egoteaz gogoeta egiten dugunean eta bere baitan atsedean hartzearen gelditasun itxi propioa adierazten saiatzen garenean.

Aipaturiko funtsezko ezaugarrien bidez, ezer erabakigarri bada, obran gehiago jazotze bat eman da ezagutzera eta inolaz ere ez atsedean bat; zer da, izan ere atsedena, mugimenduaren kontrakoa baino? Ez da inolaz aurkakotasun bat, mugimendua kanpora uzten duena, barne hartzen duena baizik. Mugitua bakarrik atsedean daiteke. Mugimendua nolakoa, halakoa izango da atsedena. Mugimenduan, gorputz baten lekualdaketa soil den aldetik, atsedena da nabarmen mugimenduaren mugako kasua bakarrik. Baldin atsedena mugimendua bere barnean hartzen badu, orduan izan daiteke atsedean bat mugimenduaren barneko bilketa bat, beraz mugitasun gorena dena, emanik mugimendu mota honek halako atsedena eskatzen duela. Gisa honetako da, inolaz, bere hartan atsedean hartzen duen obraren atsedena. Atsedean honetara hurbiltzen gara, baldin jazotzearen mugitasuna obra-izatean beti berdin jasotzea lortzen badugu. Galdetzen dugu: zein erlazio erakusten dute mundu baten eraikitzeak eta lurraren egiteak obran bertan?

Mundua da erabaki soil eta funtsezkoen bide zabalean irekitzen ari den irekitasuna herri historiko baten patuan. Lurra da etengabe ixten ari den eta hala ezkututzen den ezerezera beharturiko azaltzea. Mundua eta lurra esentzialki desberdinak dira beren artean eta halere sekula ez apartatuak. Mundua lurrean oinarritzen da, eta lurra mundua oldartzen du. Baina munduaren eta lurraren arteko erlazioa ez da inondik ere indargetzen ezertan ez datorkion kontrajartzearen batasun hutsean. Mundua, lurraren gainean bere atsedean hartzean, lurra bikaintzen saiatzen da. Irekitzen ari den bezala, ez du jasaten hertsirikorik. Lurra ordea jotzen du, ezkutatzailerik bezala, beti mundua bere baitan barneratzen eta gordetzen.

Munduaren eta lurraren arteko kontrakotasuna borroka bat da. Errazegi okertzen dugu guk zinez borrokaren esentzia, bere esentzia liskarrarekin eta errietarekin nahasten dugunean eta hura nahaspila eta hondamen bezala soilik hartzen dugunean. Borroka esentzialean inolaz borrokalariak altxatu egiten dira, orain bata, orain bestea, beren esentziaren autobaieztapenean. Esentziaren autobaieztapena halere ez da sekula halabeharrezko egoera batean zurruntzea, baizik izate propioaren jatorriaren jatorrizkotasan ezkutuan bere burua lagatzea. Borrokan batak bestea bere baitaz gaindi eramaten du. Era horretan borroka borrokago eta bera den baino berariazkoago bihurtzen da. Zenbat eta gogorrago areagotzen den berez borroka, orduan eta irmoago abandonatzen dira borrokalariak norberarenak izatearen barnekotasun sotilera. Lurrak ezin dio uko egin munduaren irekiari, baldin berak lur bezala bere baitan ixtearen oldar libratuan azaldu nahi badu. Munduak bere aldetik ezin ihes egin diezaioke lurrari, baldin, patu esentzial ororen zabaltasun eta ibilbidearen gidatzaile bezala, erabakitako baten gainean oinarritu nahi badu.

Obra, mundu bat eraikitzen eta lurra egiten duen neurrian, borroka horren sustatzaile da. Baina ez da hori gertatzen obrak borroka konponketa geza baten bidez segituan apaldu eta baretu dezan, baizik era horretan borroka borroka dadin. Mundu bat eraikiz eta lurra eginez gauzatzen du obrak borroka hau. Munduaren eta lurraren arteko borroka borrokatzean datza obraren obra-izatea. Borroka barnetasunaren sotiltasunean bere gailurrera iristen delako, horregatik gertatzen da borrokaren borrokatzean obraren batasuna. Borrokaren borrokatzea da bere burua etengabe gaintitzen duen obraren mugimenduaren bilduma. Borrokaren barnetasunean dauka hartaz bere baitan atsedean hartzen duen obraren atsedena bere esentzia.

Obraren atsedean honetatik azkenik suma dezakegu zer den obran obratzen duena. Behin-behineko baieztapen bat zen, orain arte, egia zela arteobran obratzen ari zena. Obraren obra-izatean, hau da, orain, munduaren eta lurraren borrokaren borrokatzean zenbateko neurrian gertatzen da egia? Zer da egia?

Zein txikia eta motza den egiaren esentziari buruzko gure jakitea erakusten du guk funtsezko hitz honen erabilera hartzeko dugun zabarkeriak. Egia hitzaz gehienetan egia bat edo bestea adierazi ohi da. Horrek esan nahi du: egiazko zerbait. Halakoa izan daiteke esaldi batean adierazten den ezagutza bat. Egiazko ordea guk ez dugu deitzen esaldi bat bakarrik, baizik baita gauza bat ere, egiazko urrea itxurazko urrearen aldean. Egiazko hemen zinezko, izanez ere urrearen pareko da. Zer esan nahi da hemen izanez ere? Halakotzat egiaz badena hartzen dugu guk. Egiazko da izanari dagokiona, eta izan da egiaz dena. Berrito itxi da oboa.

Zer esan nahi du «egiaz»? Egia da egiazkoaren esentzia. Zer datorkigu burura esentzia esaten dugunean? Halakotzat hartu ohi da egiazko oro bat datorren puntu komuna. Askorentzat berdin balio duen batak adierazten duen mota eta orokortasun kontzeptuan aurkezten da esentzia. Berdin-balio duen esentzia hau (esentziatasuna essentia-ren zentzuan) esentzia ez-esentziala baino ez da ordea. Zertan datza zerbaiten esentzia esentziala? Badena egiaz *den* horretan datza ustez. Gauza baten

egiazko esentzia bere egiazko izatearen arabera zehazten da, baden bakoitzaren egiaren arabera. Gu ordea ez gabilta esentziaren egiaren bila, egiaren esentziaren bila baizik. Nahasmendu bitxi bat azaltzen da. Zer da, bitxikeria bat da bakarrik edo agian kontzeptu joko huts bat bakarrik edo... amil bat?

Egiak egiazkoaren esentzia esan nahi du. Grezierazko\_\_\_\_\_ hitza gogoan hartuz pentsatzen dugu badenaren desezkututasuna dela. Baina hori ba al da jada egiaren esentziaren definizio bat? Ez al dugu hitzen -desezkututasuna egia ordez- erabileraren aldaketa soila gauzaren ezaugarritze bezala jotzen. Izenen truke bat izango da soilik, asmatzen ez dugun bitartean zer gertatu behar izan duen egiaren *esentzia* desezkututasun hitzean esateko premian aurkitu izateko.

Beraz, beharrezkoa al da filosofia grekoaren eraberriketa? Inondik ere ez. Eraberriketa batek, ezinezko hori posible balitz ere, ez liguke lagunduko; izan ere, filosofia grekoaren historia ezkutua datza bere hasieratik honetan, alegia \_hitzean argitzen duen egiaren esentziari leial ez datxekiola eta egiaren esentziari buruzko bere jakitea eta esatea gero eta gehiago egiaren esentzia eratorririko baten azterketan jarri behar duela. Egiaren esentzia \_ bezala greziarren pentsamenduan eta oraindik gehiago ondorengo filosofian pentsatu gabe geratu da. Desezkututasuna pentsamenduarentzat da ezkutuen izamolde grekoan, baina orobat hasiera bertatik presente dagoenaren presente oro finkatzen duena.

Baina zergatik ez dugu askitzat jotzen egiaren esentziari dagokionean, aspaldiko mendetan ondo ezagutzen duguna? Egiak esan nahi du gaur eta aspaldidanik ezagutzak gauzarekiko duen adostasuna. Baina ezagutza eta ezagutza eratzen eta aditzera ematen duen esaldia gauzari egoki dakien, aldeztatik gauza bera esaldiarentzat derrigorrezko dadin, gauzak, bera gauza den aldetik, agerian geratu behar du. Nolatan geratuko da agerian baldin bera ezin atera badaiteke ezkututasunetik, baldin bera ez badago desezkutuan? Esaldia egiazkoa da, desezkutatura, hau da, egiazkora egokitzen denean. Esaldiaren egia beti eta beti egokitasun hori da bakarrik. Egiaren kontzeptu kritikoak, Descartes ezkeroztik egia doitasun bezala hartuz abiatzen direnak, egia doitasun bezala definitzearen aldagarri baino ez dira. Guretzat ohiko den egiaren esentzia hau, irudikatzearen doitasuna, erabat bat dator egiarekin badenaren desezkututasuna den aldetik.

Guk hemen eta bestetan egia desezkututasun bezala ulertzen dugunean, ez bakarrik onartzen dugu hitz greko baten itzulpen hitzez-hitzekoago bat. Gogora dakargu guretzat egiaren -doitasunaren zentzuan- esentzia ohiko eta hartaz higituaren oinarrian esperimendu gabeko eta pentsatu gabeko bezala dagoena. Amor ematen diogu batzuetan guk noski, adierazpen baten doitasuna (egia) egiaztatu eta ulertzeko dagoeneko ageriko den zerbaitetara jo behar dugula dion aitorenari. Aurrebaldintza hori, zinez, ezin ekidin daitekeela. Guk horrela hitz egin eta pentsatuko dugun bitartean, egia beti oraindik ulertzen dugu doitasun bezala, zeinak aurrebaldintza bat behar baitu, guk geurok jartzen duguna -Jainkoak daki nola eta zergatik-.

Baina ez gara gu badenaren desezkututasuna aurretik jartzen dugunak, baizik badenaren desezkututasuna (izana) da gu halako esentzia batera kokatzen gaituena, non gu garen gure

irudikapenean beti desezkututasunean murgildurik eta haren menpe geratzen garenak. Ez bakarrik ezagutza bat antolatzeko *gida* den ezagutzak nolabait desezkutua izan behar du, baizik baita ere «antolatzeko bide» hori mugitzen den esparru osoak, eta orobat esakunea gauzarekiko egokitzea agerian jartzen duen *zergatiak* osotasun bezala jada desezkutuan garatu behar dute. Gu gure irudikapen zuzen guztiekin ez ginateke ezer, ezin aurrez ontzat eman ere eman genezakeen balitzatekeela zerbait agerian zeinaren arabera gu gidatzen garen, baldin badenaren desezkututasunak ez bagintu jarri argiune hartan non baden guztia guretzat barruan dagoen eta nondik bera erretiratzen den.

Baina nola gertatzen da hori? Nola agitzen da egia desezkututasun hau bezala? Baina, aldeztu aurretik garbiago esan behar da zer den desezkututasun hau bera.

Gauzak dira eta gizakiak, erregaliak eta opariak dira, abereak eta landareak dira, tresna eta obra dira. Badena izanean dago. Jainkozkoaren eta Jainko-kontrakoaren artean zintzilik dagoen patu ilun bat doa izanean barna. Gizakiak ezin du menderatu badenetik asko eta asko. Oso gutxi da ezagutua. Ezagutua gutxi gorabeherako bat da, menderatua segurtasunbako bat. Badena ez dago sekula, sarri hala badirudi ere, gure eskumenean, ezta gure irudikapenean ere. Osotasun hau begiz jotzen badugu bakar batean, orduan, badirudi, jasotzen dugu izan badena, nahikoa zabar bada ere.

Eta hala eta guztiz ere: badenaz gaindi, ez ordea harengandik aparte, baizik haren aurretik, beste zerbait gertatzen da oraindik. Badenaren erdian bere osoan badago leku ireki bat. Argiune bat da. Badenaren arabera pentsatuz, badena baino badenago da. Erdigune ireki hori ez dago hartaz badenaz inguratuz, baizik erdigune argitsuak berak inguratzen du, guk apenas ezagutzen dugun ezerezak bezala, baden oro.

Badena, baden den aldetik, izan izan daiteke bakarrik, argiune horretako argitasunean sartu eta irteten denean bakarrik. Argiune horrek bakarrik eskaintzen eta ziurtatzen digu guri, gizakioi, gu geu ez garen badenerako pasabidea eta gu geu garen badenerako sarbidea. Argiune horri esker dago badena neurri jakin eta aldakor batean desezkutaturik. *Ezkataturik* ere badena izan izan daiteke bakarrik argituaren esparruan. Gurekin topo egin eta gurekin doan baden orok berarekin darama presentziaren kontrakotasun bitxi hori, une berean beti ezkututasun batean saihesten denez gero. Badena aurkitzen den argiunea, berez da orobat estaltze. Estaltzeak, ordea, era bikoitz batez agintzen du badenaren erdian.

Badena ostendu egiten zaigu, guk ezer baino lehen, guk badenagatik badela baino beste ezer ezin esan dezakegunean, aurkitzen dugun bat eta, itxuraz, txikien hartaraino. Estaltzea, ostentze bezala, ez da batez ere eta bakarrik ezagutzari aldiro ipintzen zaion muga, baizik argituaren soilgunearen hasiera. Baina estaltzea orobat da, beste era batekoa noski, argituaren barruan ere. Badenetik lerratzen da badenaren aurrean, batak ostentzen du bestea, honek iluntzen du hura, gutxiak eralgitzen du askoa, bakarrekoak ukatzen du guztia. Hemen estaltzea ez da ostentze soil hura, baizik: badena azaltzen da noski, baina den ez bezala agertzen da.

Estaltze hau da disimulatzea. Baldin badenak badena disimulatuko ez balu, orduan gu ezin ekiboka eta oker gintezkeen badenean, ezin bidegetu eta galdu eta azkenik ezin huts egin genezakeen. Badenak, itxura den aldetik, engaina dezakeela, gu atzipe gaitzkeenaren baldintza da, ez alderantziz.

Estaltzea ostentzea izan daiteke edo disimulatzea soilik. Guk ez daukagu ziurki ziurtasunik, bata den ala bestea. Estaltzeak bere burua estaltzen eta disimulatzen du. Horrek esan nahi du: leku irekia badenaren erdian, argiunean, ez da sekula eskenatoki zurrun bat, oihala etengabe jaso duena, non badenaren jokoa jokatzen den. Aldiz, argiunea gauzatzen da estaltze bikoitz hau bezala bakarrik. Badenaren desezkututasuna, hori ez bakarrik da egoera existente bat bakarrik, baizik areago gertakizun bat. Desezkututasuna (egia) ez da ez gauzaren tasun bat badenaren zentzuan, ezta ere esaldiaren tasuna.

Badenaren ingurune hurbilean, etxeko sentitzen gara. Badena ezaguna da, fidatzekoa, segurua. Halere, argiunean zehar etengabeko estaltze bat lerratzen da, estaltzearen eta disimulatzearen itxura bikoitzean. Segurua funtsean ez da segurua; ez-segurua da. Egiaren esentzia, hau da, desezkututasuna, arbuiatze baten bidez menderaturik dago. Arbuiatze hau ez da inolaz gabezia eta akats bat, egiak ezkutu oro erantzi duen desezkututasun alferrikakoa balitz bezala. Hala izaterik balu, ez litzateke gehiago bera berbera. *Egiaren esentziari, desezkututasun den aldetik, arbuiatze hori dagokio, estaltze bikoitzaren eran.* Egia bere esentzian ez-egia da. Hala esana bedi, gogortasun agian harrigarri batean erakusteko, desezkututasunari, argiune den aldetik, arbuiatzea, estaltzearen eran, dagokiola. Honako esaldiak: egiaren esentzia ez-egia da, ez du esan nahi egia funtsean faltsukeria denik. Orobat ez du adierazi nahi esaldiak egia sekula ez denik bera berbera, baizik, dialektikoki aurkezturik, beti dela bere kontrakoa ere.

Egia zabaltzen da bera bezala, arbuiatze estaltzailea, ostentze den aldetik, argiune orori etengabeko jatorria ematen dion neurrian, disimulatze den aldetik ordea argiune orori huts egitearen etengabeko zorrozatasuna. Arbuiatze estaltzaileaz egiaren esentzian adierazi nahi da egiaren esentzian argiunearen eta estaltzearen erdian dirauen kontrakotasuna. Jatorrizko borrokako kontrakoa da. Egiaren esentzia bere berebanean borroka da, non erdigune ireki hura lehiatzen den, non badena sartzen den eta nondik bere baitara itzultzen den.

Ireki hori badenaren erdian gertatzen da. Guk dagoeneko aipatu dugun funtsezko ezaugarri bat erakusten du. Irekiari dagozkio mundu bat eta lurra. Baina mundua ez da besterik gabe argiuneari datorkion irekia, lurra ez da estaltzeari datorkion hertsia. Aldiz erabaki oro mendean jartzen zaion funtsezko aginduen zuinen argiunea da mundua. Baina erabaki oro oinarritzen da menderagabeko, estali, engainagarri batean, bestela ez litzateke erabaki. Lurra ez da besterik gabe estaltzea, baizik bere baitara biltzen den aldetik zabaltzen dena. Mundua eta lurra berenez, bakoitza bere esentziaren arabera, borrokagarri eta borrokalari dira. Halakotzat sartzen dira argiunearen eta estaltzearen borrokan.

Lurrak mundua pasatzen du bakarrik, mundua lurraren gainean oinarritzen da bakarrik, egia argiunearen eta estaltzearen arteko jatorrizko borroka bezala agitzen denean. Baina nola agitzen da egia? Guk erantzun: funtsezko era gutxitan agitzen da. Obraren obra-izatea da egia agitzeko era hauetako bat. Mundu bat eraikiz eta lurra ekarriz, obra da badenaren desezkututasuna bere osoan, egia alegia, borrokatuko den borroka haren gatazka.

Tenpluaren zutik egotean agitzen da egia. Horrek ez du esan nahi hemen zerbait zuzen irudikatu eta berriro eskaini denik, baizik badena bere osoan desezkututasunera eramanez dela eta han jasoa izan dela. Jasotzeak (*halten*) jatorriz babestea (*hüten*) esan nahi du. Van Goghen pinturan egia agitzen da. Ez du horrek esan nahi hemen, lehendik zegoen zerbait zuzen margotu denik, baizik oinetakoaren tresnatasuna agerian jartzearekin badena bere osoan, mundua eta lurra beren elkarrekiko jokoan, desezkututasunera iristen direla.

Obran egia ari da obratzen, beraz ez bakarrik egiazko zerbait. Nekazari oinetakoek erakusten duten irudiak, Erromako iturriak deskribatzen dituen poesiak, ez dute aldarrikatzen baden bakar hau dena, hau den aldetik, ezer aldarrikatzen badu, baizik desezkututasuna agiarazten du, desezkututasun den aldetik, badenari, bere osoan, dagokionez. Zenbat eta sotilago eta funtsezkoago soilik oinetakoak, zenbat eta apainketarik gabekoago eta soilago bakarrik iturria bere esentzian azaltzen diren, orduan eta era zuzenago eta agerikoagoan izango da haiekin badenago baden oro. Era horretan argiturik geratzen da ezkututzen den izatea. Gisa horretako argiak bere argitasuna egokitzen dio obrari. Obrari egokituriko argitasuna da ederra. *Egia desezkututasun bezala azaltzeko era bat da edertasuna.*

Hara bada, egiaren esentzia orain argiago bildua, ikuspegi zenbaitetik. Hartaz, garbiago geratuko zen agian, zer ari den obratzen obran. Halere, orain ikusteko moduan dagoen obraren obra-izateak oraindik ez digu ezer esaten obraren errealitate hurbilen eta deigarriari buruz, obrako gauza-izaerari buruz. Badirudi kasik obraren beraren bere baitan bermatzea ahalik eta garbien jasotzeko asmo bakarrarekin, gauza bat ahantzi dugula, alegia obra bat obra bat dela beti, esan nahi baita: egindako zerbait. Baldin obra, obra den aldetik, zerbaitek bereizten badu, obraren sortua-izateak bereizten du. Obra sortua den neurrian eta sortzeak bitarteko bat behar badu, nondik eta non sortzen duen, gauzazkotasun hura ere obrari itsasten zaio. Hori ez dago eztabaidatzerik ere. Baina auzia geratzen da oraindik: nola dagokio sortua-izatea obrari? Hori argi daiteke, alde zurretik puntu bikoitz bat argitzen bada:

1. Zer esan nahi du hemen sortua-izateak eta sortzeak fabrikatze eta fabrikatua-izatearen aldean?

2. Zein da obraren beraren esentzia barnekoena, handik bakarrik neur daiteke eta, zein neurritan sortua-izatea hari dagokion eta zenbateraino zehazten duen honek obraren obra-izatea?

Sortzea hemen beti obrari dagokionez dago pentsatua. Obraren esentziari dagokio egiaren agitzea. Sortzearen esentzia zehazten dugu alde zurretik egiaren, badenaren desezkututasuna den aldetik, esentziari dagokionez. Obrarekiko sortua-izatearen pertenezkoa egiaren esentziaren argitze oraindik jatorrizkoago baten bidez bakarrik jarri daiteke argitan. Egia eta haren esentziari buruzko galdea berriro itzultzen da.

Berriro jarri behar dugu galdea, baldin, obran egia obratzen ari da esaldia, baieztapen soil izango ez bada.

Orain era funtsezkoagoan galdetu behar dugu: zenbateko neurrian dago egiaren esentzia obra bat bezalako zerbaitekiko joera bat? Zein esentzia dauka egia, obran jarria daitekeen edo, baldintza jakin batzuetan, obran jarria izan dadin, egia den aldetik izan dadin? Egiaren obran-jartzea finkatzen genuen artearen esentzia bezala. Azken jarritako galderak honela dio:

Zer da egia, arte bezala agitu ahal dadin edo ezinbestean agitu dadin? Zenbateko neurrian dago artea?

#### *Egia eta artea*

Arteko obraren eta artistaren jatorria artea da. Baden baten izatea gauzatzen den artearen nondikotasuna da jatorria. Zer da artea? Haren esentzia bilatzen dugu obra errealean. Obraren errealitatea obran obratzen ari denaren arabera, egiaren agitzearen arabera zertzen da. Agitze hori munduaren eta lurraren arteko borrokaren gatazka bezala pentsatzen dugu guk. Gatazka honen mugimendu pilatuan aurkitzen da atsedena. Hemen oinarritzen da obraren bere baitako atsedena hartzea.

Obran egiaren agitzea ari da obratzen. Baina horrela obratzen ari dena, obran ere badago. Hartaz, alde zurretik jotzen da obra erreala agitze haren eroale bezala. Segituan berriro gure aurrean daukagu obra jakin horren gauza-izaerari buruzko galdea. Horrela azkenik haxe geratuko da garbi: obraren bere baitan bermatzeari buruzko galdea nahi bezain saiatuki jarri arren, haren errealitateaz huts egingo dugu, obra obratu bezala hartu behar dugula ulertzen ez dugun bitartean. Hala hartzea da normalena; obra hitzean obratua entzuten baita. Obraren obrakotasuna artistaren bidez sortua izatean datza. Harrigarri irudi liteke obraren definizio hurbilen eta guztia argitzen duen hau orain lehen aldiz izendatu izana.

Obraren sortua-izatea, garbi dagoenez, sortzea aurretik datorrelako ulertzen da. Beraz, gauzak beharturik, artistaren lanera jo behar dugu, arteko obraren jatorria aurkitzeko. Obraren obra-izatea obraren arabera soilik definitzeko ahalegina, ezinezko azaldu da.

Baldin orain obratik aldentu eta sortzearen esentziaren bila abiatzen bagara, gogoan hartu beharko dugu lehenago nekazariaren oinetakoei eta ondoren tenplu grekoari buruz esana.

Sortzea produzitzea den aldetik pentsatzen dugu guk. Baina produzitzea orobat da tresna prestatzea. Eskulanak (eskuobrak), hizkuntzaren joko harrigarria, ez du sortzen obrarik batere, ezta guk eskulaneko emaitza fabrikatik bereizten badugu ere. Zeren bidez bereizten da, ordea, produzitzea sortzea bezala, produzitzetik prestaketa bezala? Erraza bada ere obren sorketa eta tresnaren prestaketa hitzen bidez bereiztea, zaila da sorketa modu biak, bakoitza bere funtsezko ezaugarrietan, jarraitzea. Lehen begiratuan, eltzegilearen eta eskultorearen, arotzaren eta margolariaren artean jokabide berbera aurkitzen dugu. Obra-sortzeak berez eskulanezko jarduna eskatzen du. Artista handiek eskulanezko trebezia estimurik handiengan daukate. Beraiek dira lehenak eskatzen arreta berezia lanbidea ongi menderatuz. Beraiek saiatzen dira bereziki artisautzan etengabe hezitzen. Nahikoa sarri adierazi da, arteaz zerbait zekiten greziarrek, \_\_\_\_hitz bera erabiltzen zutela eskulanerako eta arterako, eta artisauak eta artistak \_\_\_\_\_ hitz berarekin izendatzen zituztela.

Horregatik, badirudi komeni dela kreativearen esentzia bere eskulanezko alderditik definitzea. Besterik ez bada, auziaren esperientzia izendatzen duen greziarren hizkuntz-erabileraren aipamenak zer pentsatua eman beharko liguke. Ohiko eta argigarri bada ere greziarrek eskulana eta artea izendatzeko \_\_\_\_hitz bera erabili izanaren aipamena, berez okerrekoa eta azalekoa da; izan ere \_\_\_\_ hitzak ez du esan nahi ez lanabesa ez artea eta azkenik ezta teknika ere gaurko zentzuan, ez du inondik ere egintza praktikoa bat esan nahi.

\_\_\_\_hitzak aldiz jakitate modu bat adierazten du. Jakitea esan nahi du: ikusi izana, ikusiren esanahi zabalean, alegia: presentea presente bezala sumatzea. Jakitearen esentzia pentsaera grekoarentzat \_\_\_\_delakoan datza, hau da: badenaren desestaltzean. Hark eramaten eta zuzentzen du badenarekiko jokaera oro. \_\_\_\_greziarren eran jasoriko jakintza bezala, badenaren produkzio bat da, berak presentea, presente den aldetik, ezkututasunetik *at* bere itxuraren desezkututasunera *aurrera* ekartzen duen neurrian; \_\_\_\_-k ez du sekula esan nahi egintza baten jardura.

Hartaz, artista ez da \_\_\_\_\_bat, artisau ere badelako, obren egitea (Herstellen) bezala lanabesaren egitea ere lehenbizi badena bere itxuratik abiatuz bere presentziara erator arazten duen produkzioan gertatzen delako baizik. Hau guztia gertatzen da, halere, berez sortzen den badenaren barruan, \_\_\_\_-en barruan. Artea \_\_\_\_bezala izendatzeak ez du esan nahi inolaz artistaren jarduna eskulanaren arabera ulertu behar denik. Obraren sorkuntzan artisautza dirudiena, beste mota batekoa da. Jardun hau sortzearen esentziak definitzen eta zuzentzen du eta hantxe geratzen da gordea.

Orduan, zein hariri heldu beharko diogu, ez bada artisauarenari, sortzearen esentzia pentsatzeko? Nola bestela, ez bada sortzekoa, obra kontuan hartuz? Nahiz obra sortzearen gauzatzean bakarrik egiazko bihurtu eta horrela bere errealitatean honen mende egon, sortzearen esentzia obraren esentziaren bidez definituko da. Baldin obraren sortua-izateak sortzearekiko zerikusirik badu ere, bai sortua-izatea bai sortzea obraren obra-izatearen arabera definitu behar dira.

Orain, beraz, ez gaitu miretsiko zergatik guk lehenbizi eta luzaz obraz bakarrik jardun dugun, azkenik orain sortua-izatea begien aurrera ekartzeko. Sortua-izatea, obra hitzean sumatzen den bezain esentzialki obrari badagokio, orduan orain arte obraren obra-izate bezala definitua, oraindik esentzialkiago ulertzen saiatu beharko dugu.

Obraren esentziaren mugaketa erdietsiaren ikuspegitik, zeinaren arabera obran egiaren agitzea obran ari baita, sortzea produkzio batean aterarazte bezala zedarritu dezakegu. Obraren obra-bilakatzea egiaren bilakatzearen eta agitzearen modu bat da. Haren esentzian datza dena. Baina zer da egia, sortua gisako gauza batean agi dadin? Zenbateko neurrian dauka egiak, bere esentzia dela eta, obrarekiko zerikusirik? Uler al daiteke hau orain arte argituriko egiaren esentziaren arabera?

Egia ez-egia da, hari oraindik-ez-(ez)desezkutuaren, estaltzearen zentzuan, iturburu esparrua dagokion neurrian. Des-ezkututasunean, egia bezala, aurkitzen da eragozpen bikoitzaren beste «des» bat. Egia, egia den aldetik, aurkitzen da argiunearen eta estaltze bikoitzaren kontrakotasunean. Egia jatorrizko gatazka da, non, aldiko era batean, irekia borrokatuko den, non, baden bezala azaltzen eta aldentzen den oro barruan dagoen eta nondik urruntzen den. Edozein delarik ere non eta nola hasten eta agitzen den gatazka hau, haren bidez apartatzen dira elkarregandik borrokalariak, argiunea eta estaltzea. Hala irabaziko da borrokaguneko irekia. Ireki honen irekitasuna, hau da, egia, bera dena izan daiteke bakarrik, irekitasun *hau* alegia, bera bere irekian finkatzen denean eta finkatzen den bezain luzaz. Horregatik ireki horretan aldioro baden batek egon behar du, nondik irekitasunak bere lekua eta iraupena hartzen duen. Irekitasunak irekia betetzen duelarik, irekita eta prest gordetzen du. Jartzea eta hartzea, \_\_\_\_-en zentzu grekoan daude pentsatuta alde guztietan, desezkutuan jartze bat esan nahi baitu.

Irekitasuna irekian eraikitzearen aipuarekin, oraindik hemen argitu ezin daitekeen eremu batera iristen da pentsatzea. Ohar bedi hau bakarrik, alegia: baldin badenaren desezkututasunaren esentzia nola edo hala izate berari badagokio (ik. «Sein und Zeit», §44); honek, bere esentziaren arabera, irekitasunaren esparrua (han-en -Da- argiunea) argi arazten du eta hura, *halako* den aldetik, eramaten du baden bakoitza bere erara altxatzen den lekura.

Egia agitzen da bakarrik, beraren bidez irekitzen den gatazka eta eremuan bera finkatzen denean. Egia argiunearen eta estaltzearen kontrakoa delako, horregatik hari dagokio hemen finkatzea deitzen dena. Baina egia ez da lehendik non edo han izarretan presente dagoena, gero ondoren beste nonbaitean badenean kokatzeko. Hori ezinezko da jada, hasteko badenaren irekitasunak non edo han bat eta presentez beteriko leku bat posible egiten duelako. Irekitasunaren argiunea eta irekian finkatzea bata bestearekin loturik daude. Egiaren agitzearen esentzia bat eta bera dira. Hau era anitzetan da historiko.

Berak irekiriko badenaren bidez egiak kokatzeko daukan era esentzioletako bat egiaren obratzen-hastea da. Beste era bat, nola egia gauzatzen den, da estatuaren sorkuntza. Beste era bat oraindik, egia nola argi bihurtzen den, da besterik gabe baden bat ez, baizik badenetan badenena

denaren hurbiltasuna. Beste era bat oraindik, nola oinarritzen den egia, da opari esentziala. Beste era bat oraindik, nola egia bilakatuko den, pentsalariaren galdetzea da, izatearen pentsatzea den aldetik hau bere zalantzazkotasunean izendatzen duena. Aldiz, zientzia ez da egiaren agitze jatorrizkoa inolaz ere, aldioro egi-esparru dagoeneko ireki baten eraikitzea baino, eta hain zuzen ere bere inguruan zuzen posible eta beharrezko bezala bera azaltzen denaren ulertze eta oinarritzearen bidez. Baldin zientzia bat zuzenaz gaindi egia batera eta, hau da badenaren, baden aldetik, desestaltze esentzialera iristen bada eta iristen den neurrian, filosofia da.

Egiaren esentziari dagokionez badenean eraikitzea, horrela inolaz egia bilakatzeko, horregatik egiaren esentzian dago *obrarako joera*, egiaren aparteko posibilitate bezala, badenaren erdian bera baden izateko.

Egiaren finkatzea obran lehenago orain ez zen eta gero sekula gehiago izango ez den gisako baden baten produzitzea da. Produkzioak halako gisan jartzen du baden hori irekian, non bera azaltzen den irekiaren irekitasunak argitzen duen ekartzekoa. Produkzioak bereziki badenaren irekitasuna, egia dakarrenean, obra bat da produzitua. Gisako produzitze hori da sortzea. Ekartze hori bezala, gehiago da hartze eta jasotze bat desezkututasunarekiko erlazioaren barruan. Zertan datza, orduan, sortua izatea? Argi dezagun bi zehaztapen esentzialen bidez.

Egia obran finkatzen da. Egia argiunearen eta estaltzearen arteko gatazka bezala aurkitzen da munduaren eta lurraren kontrakotasunean. Egiak, munduaren eta lurraren arteko gatazka hau bezala, obran eraikia izan nahi du. Gatazka ez da jaso behar berariaz produzitu beharreko baden batean, ezta aterpetua ere, baizik harengatik irekia izan behar du. Baden horrek hartaz bere baitan gatazkaren ezaugarri esentzialak izango ditu. Gatazkan munduaren eta lurraren arteko batasuna erdietsiko da. Mundua irekitzen delarik, gizadi historiko bati garaipena eta porrota, bedeinkazioa eta madarikazioa, jauntasuna eta morrontza jartzen dizkio eskura erabaki dezan. Eguneratzen ari den munduak oraindik erabakibakoa eta neurribakoa azalarazten du eta horrela neurri eta erabaki sendoaren premia ezkutua irekitzen du.

Baina mundu bat irekitzen delarik, lurra dator agerira. Dena garraiatzen duena bezala azaltzen da, bere legean ezkututzen eta etengabe hertsitzen dena bezala. Lurrak bere erabakia eta bere neurria eskatzen ditu eta badena bere zuinen irekita iristarazten du. Lurra saiatzen da, ageriz-jasoz hertsirik egoten eta dena bere legearen esku uzten. Gatazka ez da plano bat, amil soil baten plano bertikal bezala, baizik gatazka da borrokalarien elkarrekikotasunaren barnetasun bezala. Plano honek beren batasunaren jatorrira behartzen ditu kontrakotasunak beren oinarri propioetatik abiatuz. Hori da plano horizontala. Hori da plano bertikala, badenaren argiunearen irekitzearen funtsezko zuinak markatzen dituen. Plano horrek ez die uzten kontrakoei beren artean hausten, baizik neurriz eta mugaz kontrako direnak beren ingurune propiora eramaten ditu.

Egia, gatazka den aldetik, produzitu beharreko baden batean eraikitzen da bakarrik, gatazka baden horretan irekia, alegia gatazka planora eramana denean. Planoa plano bertikalaren eta

horizontalaren, zeharkakoaren eta ingurukoaren batasunezko mihiztadura da. Egia badenean eraikitzen da halako moduan, non honek berak egiaren irekia hartzen duen. Hartze hau ordea bakarrik gerta daiteke halako moduan, non produzitzekoa, planoak, irekian agerian den bere baitan ixten denaren esku uzten duen. Planoak berriro atzera egin behar du harriaren astuntasun iraunkorrera, zuraren gogortasun mutura, koloreen distira ilunera. Lurrak planoak berriro bere gain hartzean, planoak irekian jarria izango da eta halako moduan jarria, hau da kokatua irekian ixten eta babesten den bezala.

Planora eramandako gatazka eta era horretan lurrean berriro ipinia eta horrela finkatua *irudia* da. Obraren sortua izateak esan nahi du: Egia irudian finkatua izatea. Hauxe da egitura, irudia nola moldatzen den. Moldaturiko planoak da egiaren distiratzea. Hemen irudi izendatzen dena beti pentsatu behar da jartze eta eratze *haren* arabera, han gauzatzen baita *obra*, bera eraikitzen eta eskaintzen den neurrian.

Obraren sortzean gatazkak, planoak den aldetik, lurrera itzulia izan behar du, lurrak berak, bere baitan ixten den bezala, agerian jarria eta erabilia izan behar du. Erabiltze honek ordea ez du hondatzen ez ahitzen lurra materia bat bezala, baizik libratu egiten du berarentzat. Lurraren erabiltze hau berarekin obratze bat da, materiaz artisauki baliatzearen traza dauka inolaz. Hortik dator obra sortzea artisau-lana ote den itxura ere. Baina ez da inondik ere. Baina beti geratzen da lurraren erabiltze bat tresnaren egia irudian finkatzean. Tresnaren prest izatea materia baten eratua izatea da, eta hain zuzen ere erabilerarako prestaketa bezala. Tresnaren prest izateak esan nahi du, hau, ber-beraren gaindi, gauzatasunean utzia dela.

Ez da hala obraren sortua-izatea. Hori argi geratuko da hona ekarriko dugun bigarren ezaugarriaren bidez.

Tresnaren prest-izatea eta obraren sortua izatea elkarrekin bat datoz honetan, alegia, biak produzitua izate bat osatzen dutela. Baina obraren sortua izateak gainerako produkzio guztien aldean badu bere berezitasuna, alegia sorturikoan bera ere sortua dela. Baina ez al du balio honek produzitu eta nolabait etorki den ororentzat? Produzitu orori, ezer ematen bazaio, produzitua izatea ematen zaio. Hala da noski, baina obran sortua izatea propio sortuan bertan sortua da, halako moduan non handik abiatuz horrela produzitua propio altxatzen den. Gauzak horrela, orduan sortua izatea bera ere obran sumatu ahal izango genuke.

Sortua izatea obratik azaltzeak ez du esan nahi, artista handi batek eginga dela sumatzeko bezain nabarmen sumatu behar denik. Sortuak ez du eman behar aditu baten lorpenaren lekukotza eta horrela egileak herri-aitortza erdiestea. Ez da ezagutarazi behar N.N. fecit, baizik «factum est» soila gorde behar da agerian obran: alegia, ezen badenaren desezkututasuna agitu dela hemen eta agitze hau bezala agitzen dela lehenik: alegia, ezen obra hori *badela* eta ez inondik ere ez dela. Bulkada, ezen obra badela obra hau den aldetik, eta bulkada sotil honen ez-eteteak dakar obraren

obran bere baitan atsedean hartzearen iraunkortasuna. Artista eta ibilbidea eta obraren eraikitzearen gorabeherak ezagunak ez diren lekuan azaltzen da garbier bulkada hau, sortua-izatearen «ezen» hau.

Egiaz eskura dagoen eta erabiltzen den tresna orori ere badagokio «ezen» egina dena. Baina «ezen» hau ez da azaltzen tresnan, baizik desagertzen da erabilgarritasunean. Zenbat eta eskurakorrago tresna bat den eskura, hainbat eta sumagaitzago da, ezen, adibidez, halako mailu bat dela, hainbat eta soilkiago geratzen da tresna bere tresnatasunean. Inolaz aurrean den orotan igar dezakezu ezen hura badela; baina hori sumatu egingo da bakarrik, segituan ondoren ohiko den bezala ahazturik geratzeko. Zer da, ordea, ohikoago ezen badena badela baino? Obrari, aldiz, da ezohikoena, ezen obra denez *dela*. Bere sortua-izatearen agitzeak ez du segitzen soilik dardarka obrari; aldiz, ezen obra obra den aldetik izatearen agitzeak botatzen du obra bere aurrera eta bere inguruan bota du beti. Zenbat eta era esentzialagoan irekitzen den obra, orduan eta argigarriago izango da horren berezitasuna, ezen hura badela eta ez aldiz ez dela. Zenbat eta era esentzialagoan kolpe hori irekita etorri, orduan eta arrotzago eta bakartiago izango da obra. Obraren produkzioan dago «ezen baden»aren opari hori.

Obraren sortua-izateari buruzko galderak hurbildu egin beharko liguke obraren obra-izaerara eta horrekin batera bere errealitateara. Sortua-izatea desestali zen borrokaren finkatua-izate bezala etenaren bidez irudian. Horrela sortua-izatea bera berariaz sartua da obrari eta dago «ezen» haren kolpe isil bezala irekian. Baina sortua-izatean ere ez da ahitzen obraren errealitatea. Alderantziz: obraren sortua-izatearen esentziari begiratzeak jartzen gaitu orain arte esandako guztiak jotzen duen urratsa emateko egoeran.

Zenbat eta bakartiago bere baitan egon obra, irudian finkaturik, zenbat eta garbiago badirudien askatzen dituela gizakiarekiko erlazio guztiak, hainbat eta sotilago sartzen da kolpean ezen obra *dela*, irekian, hainbat eta era esentzialagoan zabaltzen da izugarria eta ordura arte ziurra zirudiena iraultzen. Baina tupust anitz honek ez du batere indarkeriatik; izan ere, zenbat eta garbiagoa obra bera irekitzen den bere bidez irekiriko badenaren irekitasunean, orduan eta errazago sartzen gaitu irekitasun horretan eta orobat ateratzen ohikotik. Lekualdatze hauek segitzeak esan nahi du: munduarekiko eta lurrarekiko ohiko erlazioak eraldatzea eta horrela ohiko egite eta balioztatzearekin, ezagutzen eta begiratzearekin norbere baitan eustea, munduan gertatzen den egian pausatzea. Pausatze honetan eustea uzten dio sortuari obra izaten, bera dena. Hau da: obrari obra izaten uzteari deitzen diogu obraren zainketa. Zainketarako obra eskaintzen da bere sortua-izatean egiazko bezala, esan nahi baita orain: obrakoa presente bezala.

Obra bat, sortua ez bada, izan izan ez daitekeen bezala, obrak guztiz esentzialki sortzaileak behar dituen bezala, ezin iraun dezake sortuak berak baden bezala zaintzailerik gabe.

Baldin, ordea, obra batek zaintzailerik aurkitzen ez badu, ez baditu bilatzen zuzenean halako moduan non obrari agitzen den egiari ez zaizkion egokitzen, orduan horrek ez du esan nahi obra bat oraindik obra denik zaintzailerik gabe. Izan ere, egiaz obra bada, beti datxekie zaintzaileei, baita ere,

eta bereziki orduan, zaintzaileen zain dagoenean eta haien itzulera egiara eskatzen eta itxaroten duenean. Are obra eror daitekeen ahaztura ez da ezer ez; hori bera zainketa da oraindik. Obratik elikatzen da. Obraren zainketak esan nahi du: obran agitzen den badenaren irekitasunaren barnean egotea. Zainketaren jagoletza, ordea, jakintza bat da. Jakitea, halere, ez datza zerbait ezagutze eta irudikatze soilean. Badena egiaz dakienak, badaki badenaren erdian zer nahi duen.

Hemen aipaturiko nahi izatea, ez jakite bat erabiltzen duena, ezta aldeztatik erabakitzen duena, «Sein und Zeit»en pentsatzearen oinarritzko esperientziaren arabera dago pentsatua. Jakitea, nahi bat dena, eta nahi bat, jakite bat dena, da existitzen den gizakiaren beraren onartze ekstatikoa badenaren desezkututasunean. «Sein und Zeit»en pentsaturiko erabakitasuna ez da subjektu baten egintza berariazko bat, baizik hor-izatearen (Dasein) irekitzea badenaren zurruntasunetik izatearen irekitasunera. Existentzian ez doa inolaz gizakia barne batetik kanpo batera, baizik existentziaren esentzia datza barne-egotean kanpoan-egonez badenaren argiunearen eten esentzialean. Ez lehenago aipaturiko sortzean, ezta orain aipaturiko nahi izatean pentsatu da norbera helburu bezala jartzen eta hara jo nahi duen subjektu baten ahalegin eta ekintza batean.

Nahi izatea da norberaren gaindi joate existentzearen erabakitasun bizkorra, badenaren irekitasunean obran jarria bezala azaltzen dena. Horrela doa jagoletza legera. Obraren zainketa jakintza den aldetik da jagoletza burutsua obran agitzen den egiaren izugarritasunean.

Jakite hau, nahi izate bezala obraren egian etxeko dena eta horrela bakarrik jakite bat dena, ez du ateratzen obra bere baitan egotetik, ez du erauzten obra sentitze soilaren ingurunera eta jaisten du obra bizikizun piztaile baten egitekora. Obraren zainketak ez ditu bakartzen gizakiak beren bizikizunetan, baizik obran agitzen den egiaren pertinentziara erakartzen ditu eta horrela eraikitzen du elkarrentzat eta elkarrekin izatea hor-izatearen (Da-sein) iraupen historiko bezala desezkututasunarekiko erlaziotik abiatuz. Azkenik, jakitea, zainketaren eran, urrun dago obran dagoen formalaren, haren tasun eta graziaren ezagutze soiletik. Jakitea, ikusi izan bezala, erabaki-izate bat da: obra etenera eramane zuen borrokaren barruan-egotea da.

Obraren zainketa zuzenaren era obraren beraren bidez soilik eta bakarrik da sortua eta aldeztatik markatua. Zainketa jakitearen maila desberdinetan gertatzen da aldioro zabalero, iraupen eta argitasun desberdinekin. Baldin obrak arte-gustu soilari eskaintzen bazaizkio, ez da horrekin egiaztatzen, ezen obra bezala zaindurik daudenik.

Izugarrirako bultzada hura ohikoan eta ezagunean tratatua den bezain laster, hasi da jada arte-industria obren inguruan. Obren helegite arretatsuak berak, haien berreskuratzeko ahalegin zientifikoek ez dute erdiesten gehiago obra-izatea bera, baizik haien oroitzapen bat soilik. Baina honek ere eskaini diezaioke obrari egoitza bat, nondik historia egituratu. Obraren errealitate propioena, aldiz, emankor bihurtzen da bakarrik, obra bere bidez agitzen den egian zaindua denean.

Obraren errealitatea finkaturik geratzen da ezaugarri nagusietan obra-izatearen esentziaren arabera. Orain berriro har dezakegu hasierako galdera: Zer gertatzen da obraren zuzeneko errealitatea bermatu behar zuen obraren gauza-izaerarekin? Gertatzen da ezen, guk orain ez dugula gehiago galdetzen obran dagoen gauza-izaerari buruzko galdera; izan ere, gu horri buruz galdetzen ari garen bitartean, obra bere hartan eta ezer baino lehen erabat objektu eman bezala hartzen dugu. Era horretan ez dugu galdetzen obratik abiatuz, gugandik abiatuz baizik. Gugandik, horrela obrari obra izaten uzten ez diogularik, baizik aldiz gudan nolabaiteko egoera bat eragin behar duen objektu bezala irudikatzen dugularik.

Obran, objektu bezala harturik, gauza-izaerako bezalako itxura daukana, gauzaren ohiko zentzuan, da, obratik abiatuak esperimendatuz, obraren lurrekotasuna. Lurra agertzen da obran, obra, obra den aldetik, egia obratzen ari den lekuan garatzen delako, eta egia baden batean eraikitzen denean bakarrik garatzen delako. Lurrean, esentzialki ixten dena den aldetik, aurkitzen du, berriz, irekiaren irekitasunak bere erresistentziarik handiena eta horren bidez bere leku iraunkorraren egoitza, non itxurak finkatua izan behar duen.

Orduan, alferrikako zen gauzaren gauza-izaerari buruzko galderan sartzea? Inondik ere ez. Egia da, gauza-izaeratik ezin finka daitekeela obra-izaera, alderantziz obraren obra-izaeraren jakitetik eraman daiteke bide zuzenenera gauzaren gauza-izaeraren galdera. Ez da hori gutxi, gogoan hartzen badugu ezen antzinetatik hona ohiko zen pentsatzeko erak gauzaren gauza-izaera porrokatu duela eta tresnaren eta obraren egitura esentziala ulertzeko gauza ez den badenaren ulermolde bat bere osoan nagusi jarri duela, egiaren jatorrizko esentziarekiko itsu bihurtzen duelarik.

Gauzaren gauzatasuna finkatzeko ez da aski ez tasunak daramatzanari begiratzea, ezta zentzuen bidez emanikoen aniztasunari bere batasunean begiratzea ere, are gutxiago oraindik beretzat irudikatzen den materia-forma trabazoi tresnazkotasunetik hartuari. Gauzen gauza-izaeraren ulermolderako neurri eta pisu ematen dion begiradak gauzen lurreko izatera jo behar du. Lurraren esentzia, ezertara behaturik ez dagoen eramalea eta bere baitan ixten dena den aldetik, agerian jartzen da inolaz bakarrik mundu batean sortzen denean, elkarrekiko oposizio baten barruan. Borroka hau egiazaturik dago obraren itxuran eta horren bidez agerian jarria izango da. Tresnari buruz balio duenak, tresnaren tresna-izaera obraren bidez bakarrik ikasten dugula alegia, balio du orobat gauzaren gauza-izaerari buruz ere. Guk gauza-izaerari buruz zuzenean ezer ez dakigula, eta ezer jakitekotan zehaztasunik gabe dakigula, beraz obra behar dugula, horrek erakusten du zeharka ezen obraren obra-izatean egiaren agitzea, badenaren irekitzea obran dagoela.

Baina, erantzun genezakeen azkenik, ez al da obra bere aldetik, eta hain zuzen ere sortua izan aurretik eta horretarako lurreko gauzeekin, naturarekin erlazionatu behar, baldin gauza-izaera era egokian irekian jarri behar bada? Hori ondo asko jakin behar zuen batek, Albrecht Dürer-ek, halere esan zuen esaldi ezagun hura: «Izan ere, egiaz artea naturan dago, hura erauzi dezakeena egingo da haren jabe». Erauzi hemen esan nahi du bereizgarria ateratzea eta bereizgarria erauztea margo-

lumaz margo-orrian. Baina segituan dator kontra-galdera: Nola izan behar du erauzia bereizgarria, baldin ez bada bereizgarri bezala, hau da, baldin aldez aurretik neurriaren eta neurrigabeziaren arteko borroka bezala proiektu kreatzailearen bidez irekiera eramana ez bada? Naturan badago, noski, bereizgarri bat, neurri eta muga eta harekin loturik dagoen atera ahal izate bat, artea. Baina orobat ziur da, ezen artea naturan obraren bidez bakarrik jartzen dela agerian, jatorriz obran dagoelako.

Obraren errealitateari buruzko ahaleginak lurra prestatu behar du egiazko obran artea eta haren esentzia aurki ditzagun. Artearen esentziari buruzko galdera, hari buruzko jakitearen bidea, ezer baino lehen berriro oinarri batera eraman behar dira. Galderaren erantzuna da, zinezko erantzun oro bezala, galdera-urrats sail luze baten azken urratsaren azken bukaera. Erantzun oro, erantzun den aldetik, geratzen da indarrean bakarrik galderetan erroturik dagoenean.

Obraren errealitatea bihurtu zaigu, bere obra-izateatik abiatuz, ez bakarrik argiagoa, baizik orobat esentzialki aberatsagoa. Obraren sortua-izateari datxekio era hain esentzian sortzailea bezala baita zaintzailea ere. Baina obra da, izan ere, sortzaileak bere esentzian posible egiten dituen eta bere esentziagatik zaintzaileak behar dituen. Baldin artea obraren jatorria baldin bada, horrek esan nahi du bera dela obran esentzialki elkarrekiko direnak, sortzaileak eta zaintzaileak, beren esentzian azaleratzen dituen. Baina zer da artea bera, zuzentasunez jatorri dei dezagun?

Obran ari da egiaren agitzea, eta hain zuzen ere obra baten eraren arabera obran. Horregatik aldez aurretik finkatu zen artearen esentzia egiaren obran-aritzea bezala. Baina finkatze hori berriaz da bikoitza. Alde batetik esaten du: artea da itxuran bera eraikitzen den egiaren finkatzea. Hori gertatzen da sortzean, badenaren desezkututasuna agerian jartzea den aldetik. Obraren aritzeak, ordea, esan nahi du bere aldetik: obra-izatearen martxan eta agitzean jartzea. Hori gertatzen da zainketa bezala. Beraz da artea: egiaren zainketa kreatzailea obran. *Orduan artea da egiaren bilakatze eta agitze bat.* Orduan egia ezerezetik dator? Egiaz, baldin ezerezaren bidez badenaren ez soila adierazi nahi bada eta horrekin badena, obraren han egotearen bidez, ustezko baden egiazko soil bezala, argitara datorren eta astintzen den ohiko presente hura bezala hartzen bada. Egia ez da sekula irakurriko presente eta ohikotik abiatuz. Aldiz irekiaren irekiera eta badenaren argiunea gertatzen dira bakarrik, jaurtikia-izatean datorren irekitasuna proiektatua denean.

Egia, badenaren argiune eta ezkutitze den aldetik, agitzen da poesiatua denean. *Arte oro esentzian da poemagintza*, badenaren, baden bezala, egiaren etorreraren agitzen uzte den aldetik. Artearen esentzia, non arteobra eta artista batera aurkitzen diren, da egiaren obran-jartzea. Artearen esentzia poesiagiletik gauzatzen da, ezen badenaren erdian leku ireki bat zabaltzen dela, haren irekitasunean dena bestetan ez bezalakoa delarik. Gure gainera datorkigun badenaren desezkutitze honen obran jartzeari esker, arteobraren bidez ohikoa eta orain artekoa ezden bihurtuko da. Honek izatea neurritzat emateko eta bermatzeko posibilitatea galdu du. Horretan harrigarriena da, ezen obrak ez duela eraginik orain arteko badenaren gainean inolako eragin erlazio kausalaren bidez.

Obraren eragina ez datza bere eraginean. Errotzen da obratik jazotzen den badenaren –eta horrek esan nahi du, izatearen– desezkututasunaren aldaketa batean.

Poema ez da ordea nahi denaren imajinatze alderrai bat, ezta ere ezegiazkoan irudikatze eta asmatze soilean zintzilik egotea. Poemak desezkututasunaren proiektu argitzale bezala zabaltzen duena eta irudiaren bereizgarrian aurreraka botatzen duena da berak agiarazten duen irekia, eta hain zuzen ere halako moduan non orain irekiak azkenik badenaren erdian hau argitzera eta soinu egitera eramaten duen. Obraren esentziari eta badenaren egiaren agitzearekiko erlazioari begiratu esentzial bat botaz zalantzazko bihurtzen da, ea poemaren esentzia, eta horrek adierazten du orobat proiektuarena, nahikoa egoki pentsa ote daitekeen imajinazioaren eta irudimenaren arabera.

Poemaren esentzia hau orain bere zabaleroan, baina ez horregatik zehaztasunik gabe, ikasitakoa, gera bedi hemen pentsatzea merezi duen zalantzarri bezala jarria.

Baldin arte oro esentziaz poema bada, orduan arkitekturak, eskulturak, musikak poesiara laburbilduak izan behar dute. Hori kapritxo hutsa da. Egiaz hala da, aipaturiko arteak hizkuntz-artearen aldagarriak baino ez direla uste dezagun bitartean, baldin guk poesia erraz gaizki uler daitekeen izen honen bidez zertu nahi badugu. Baina poesia egiaren, hau da: poesigintzaren –zentzu zabalago honetan– proiektatze argitzailearen moduetako bat baino ez da. Halere, hizkuntz-arteak, poesiak zentzu hertsia goan, arteen osotasunean aparteko leku bat dauka.

Hori ikusteko, hizkuntzaren kontzeptu zuzena behar dugu bakarrik. Ulermolde ohikoan, hizkuntza komunikazio modu bat bezala hartu ohi da. Solaserako eta itunerako balio du, oro har elkar ulertzeko. Baina hizkuntza ez da bakarrik, eta ez lehen mailan, komunikatu behar denaren ahotsezko eta idatzizko adierazpen bat. Hizkuntzak bultzatzen du agerikoa eta ezkutukoa, horrela nahi izana bezala ez bakarrik hitzen eta esaldien bidez, baizik hizkuntzak badena baden bat bezala ekartzen du ezer baino lehen irekira. Hizkuntzarik garatzen ez den lekuan, adibidez harri, landare eta abereen izatean, ez dago han badenaren inolako irekitasunik, eta hartaz ezta ezdenaren edo hutsaren irekitasunik ere.

Hizkuntzak lehenbizikoz badena izendatzen duen neurrian, izendatze horrek ekartzen du badena hitzera eta azaltzera. Izendatze honek izendatzen du badena bere izatera izate honetatik. Esate hori da argiaren proiektatze bat, eta horretan iragarriko da zer den aldetik datorren badena irekira. Proiektatzea da botatze baten askatzea, eta horren itxuran desezkututasuna bera badenera, baden bezala, bidaltzen du. Proiektatzen den iragarpena bertatik bihurtuko da nahasmen gor zabar ororekiko ukapen, nahasmen horretan babesten eta ezkututzen delarik badena.

Proiektatu den esatea poema da: munduaren eta lurraren kontakizuna, bere borrokaren jokalekuaren kontakizuna, eta horrekin jainkoen hurbiltasun eta urruntasun oren lekua. Poema da badenaren desezkututasunaren kontakizuna. Hizkuntza bakoitza da kontakizun horren agitzea, non historiaren arabera herri bati bere mundua irekitzen zaion eta lurra hertsia bezala gordetzen.

Proiektatu den esatea da, esangarriaren prestakuntzan orobat ez-esangarria, ez-esangarri bezala, mundura dakarrena. Gisako esatean herri historiko bati bere esentziaren kontzeptuak, hau da: mundu-historiarekiko bere pertenezia alde aurretik markatuko zaio.

Poema hemen zentzu hain zabalean eta orobat hizkuntzarekin eta hitzarekin hain esentziazko batasun barnekoan dago pentsatua, non irekita geratu behar duen auziak, alegia: ea arteak, eta hain zuzen ere bere mota guztietan, arkitekturatik poesiara, poemaren esentzia ahitzen duen.

Hizkuntza bera poema da zentzu esentzialean. Baina hizkuntza gizakiarentzat aldioro badena, baden bezala, azaltzen den agitzea denez, horregatik da poesia, poema zentzu hertsian, jatorrizko poema zentzu esentzialean. Baina hizkuntza ez da poema lehen-poesia delako, baizik poesia agitzen da hizkuntzan, honek poemaren jatorrizko esentzia gordetzen duelako. Arkitektura eta eskultura aldiz gertatzen dira beti jada eta beti bakarrik kontakizunaren eta izendatzearen irekian. Honek zuzentzen eta gidatzen ditu. Horregatik dira beti bide eta modu berezi, nola finkatzen den egia obran. Dira, bakoitza bere aldetik, poema propio bat badenaren argiunearen barruan, jada eta konturatu gabe hizkuntzan agitzen direnak.

Arte, egiaren obran-jartzea den aldetik, poema da. Ez bakarrik obraren kreetzea da poetikoa, baizik neurri berean da poetiko, bere modu berezian ordea, obraren zainketa ere; obra bat, izan ere, obra bat den aldetik da bakarrik egiazko, guk geuk gure ohikotasuna erazten dugunean eta obrak ireki duenean sartzen garenean, horrela gure esentzia bera badenaren egian eraikitzeko.

Artearen esentzia poema da. Poemaren esentzia, berriz, egiaren eraikitzea da. Eraikitzea hiru zentzutan ulertzen dugu hemen: eraiki oparitzea bezala, eraiki oinarritzea bezala, eraiki hasi bezala.. Eraikitzea, ordea, zainketan da bakarrik egiazko. Hala, eraikitze mota bakoitzari zaintze mota bat dagokio. Artearen eraikuntza esentzial hau lerro gutxi batzuetan ikusteko moduan jarri dezakegu eta hau bakarrik lehengo obraren esentziaren ezaugarritzeak horretarako lehen argitasun bat ematen digun neurrian.

Egiaren obran-jartzeak kolpetik irekitzen du izugarria eta orobat iraultzen du ziurra eta ziurtzat hartzen dena. Obran irekitzen den egia ezin da egiaztatu eta eratorri orain artekotik. Orain artekoa bere errealitate bakarrean obrak kontraesango du. Arteak eraikitzen duena, horregatik ezin daiteke parekatu eta berdindu emana eta eskura dagoenaren bidez. Eraikizuna joritasuna da, erregali bat.

Egiaren proiektu poesiagilea, irudi bezala obran jartzen dena, ez da burutzen ez hutsean eta zehaztasunik gabean. Egia obran aldiz etorriko diren zainzaileengana, hau da: gizadi historiko batengana jaurtikiko da. Jaurtikia, halere, ez da inolaz gehiegizko eskakizun kapritxozkoa. Proiektu egiaz poesiagilea da hor-izatea (Dasein), historiko bezala, dagoeneko jaurtikia den hura. Hori da lurra eta herri historiko batentzat bere lurra, bere hartan ixten den jatorria, non berak –beretzat oraindik ezkutuko– dagoeneko den guztiarekin atsedean hartzen duen. Baina bere mundua da, hor-izateak izatearen

desezkututasunarekiko duen erlazioaren arabera agintzen duena. Horregatik gizakiari eman zaion guztia jatorri hertsitik kanpora atera behar da proiektuan eta berariaz horren gainean ipini. Horrela bakarrik izango da oinarritua oinarri eustaille bezala.

Hori ekartze bat delarik, sortze oro ateratze bat da (iturritik ura ekartzea). Subjektibismo modernoak gaizki ulertzen du, noski, kreatora, hain zuzen ere subjektu subiranoaren lorpen jenialaren zentzuan. Egiaren eraikuntza ez da eraikuntza oparitze librearen zentzuan bakarrik, baizik da eraikuntza orobat oinarritze oinarri-jartzaile honen zentzuan. Proiektu poesiagilea ezerezetik dator, kontuan izanik bere oparia ez duela hartzen ohikotik eta orain artekotik. Ez dator, ordea, inolaz ezerezetik, haren bidez jaurtikia ezkutuan zegoen hor-izate historikoaren beraren xedapen baino ez den neurrian.

Oparitzeak eta oinarritzeak guk hasiera deitzen dugunaren bertakotasuna daukate. Baina hasieraren bat-batekotasun honek, bat-batekotasunetiko jauziaren berezitasunak ez du kanpoan uzten, baizik barruan, hasiera dela luzeenen eta ezkutuan prestatzen dena. Egiako hasiera, jauzi den aldetik, beti aurre-jauzi bat da, non etortzeko den guztia dagoeneko jauzian gauditua den, estalita dagoen zerbait bada ere. Hasierak bere baitan dauka dagoeneko ezkutuan amaia. Hasiera egiazkoak ez dauka, noski, primitiboaren hasiberri-izaera. Primitiboa beti da etorkizunik gabea, ez daukalako jauzi eta aurrejauzi oparigile eta oinarrigilerik. Ezin du ezer gehiago bere baitatik utzi, ez baitauka ezer ez bada bera atrapaturik daukana.

Hasierak, aldiz, beti dauka izugarriaren, hau da: seguruarekiko borrokaren betetasun hertsia gabea. Artea poema bezala eraikuntza da egiaren borrokaren eragitearen hirugarren zentzuan, da eraikitzea hasiera bezala. Badenak, bere osoan, baden bezala irekitasunean oinarritzea eskatzen duenean, iristen da artea bere esentzia historikora eraikuntza bezala. Hala gertatu zen lehen aldiz mendebaldean mundu grekoan. Gerora izate deitzen dena, neurri bezala obran ipini zen. Era horretan irekitako badena bere osoan gero aldatu zen badenera Jainkoak sortuaren zentzuan. Erdi Aroan gertatu zen hori. Baden hori berriro eraldatua izan zen aro berriaren hasieran eta joanean. Badena kalkuluaren bidez mendera eta iker zitekeen objektu bihurtu zen. Berriro mundu berri eta esentzial bat ireki zen. Berriro badenaren irekitasunak, egia finkatuz, itxuran, badenean bertan eraikia izan behar izan zuen. Badenaren desezkututasuna agitu zen berriro. Obran jartzen da, jartze horrek artea burutzen duelarik.

Artea agitzen den bakoitzean, hau da: hasiera bat denean, historiara kolpe bat dator, historia hasi egiten da lehenez edo berriro. Historiak ez du esan nahi hemen nolanhiko edo nahiz garrantzizko gertakarien segida denboran. Historia da herri baten sartzeta bere egin beharrekoan, bere ondarean sartzeta den aldetik.

Artea da egiaren obran-jartzea. Esaldi honetan ezkututzen da bikoiztasun esentzial bat, zeinaren arabera egia orobat da jartzea subjektu eta objektu. Baina subjektu eta objektu izen desegokiak dira hemen. Esentzia bikoitz hori pentsa dezagun eragozten dute; egiteko hori ez datorkio

gehiago gogoeta honi. Artea historikoa da eta historikoa den aldetik da egiaren zainketa sortzailea obran. Artea poema bezala agitzen da. Hau da eraikuntza hiru zentzutan: oparitzearen, oinarritzearen eta hastearen zentzutan, alegia. Artea eraikitze bezala esentzialki historikoa da. Horrek esan nahi du ez bakarrik: arteak historia bat duela azaleko zentzuan, denboren joanean beste askoren artean bera ere azaltzen dela eta horrela aldatu egiten dela eta galtzen eta historiari alderdi desberdinak eskaintzen dizkiola. Artea historia da zentzu esentzian, alegia: historia eraikitzen du.

Arteak egia azalerazten du. Arteak jauzarazten du zainketa fundatzaile bezala badenaren egia obran. Zer bait jauzaraztea, jauzi fundatzailean jatorri-esentzitatik izatera eraman, hori esan nahi du jatorri hitzak.

Arteobraren jatorria, hau da: orobat sortzailearena eta zaintzailearena, horrek esan nahi du herri baten hor-izate historikoaren jatorria artea dela. Hori hala da, artea bere esentzian jatorri bat delako: aparteko modu bat nola egia bihurtzen den izate, hau da historiko.

Artearen esentziaz ari gara galdezka. Zergatik galdetzen genuen guk era horretan? Guk galdetzen genuen era horretan era zehatzagoan galdetu ahal izateko ea artea gure hor-izate historikoan jatorri bat den edo ez, ea eta zein baldintzatan hala izan daitekeen eta izan behar duen.

Gisako gogoeta batek ezin behar dezake artea eta bere bilakaera. Baina jakite gogoetatsu hau da artearen bilakaerarako prestakuntza aurretiko eta, hortaz, ezinbestekoa. Halako jakite batek bakarrik prestatzen dio obrari espazioa, sortzaileari bidea, zaintzaileari lekua.

Astiro bakarrik hazi daitekeen gisako jakite batean erabakitzen da, ea artea jatorri bat izan daitekeen eta gero aurrejauzi izan behar duen, edo ea luzagarri bat izan behar duen bakarrik, eta orduan tarraka eraman behar den arrunt bihurturiko kultur fenomeno bezala.

Gure hor-izatean, historiari dagokionez, jatorrian al gaude? Ba al dakigu, hau da: erreparatzen al diogu jatorriaren esentziari? Edo, artearekiko gure jokaeran, iraganaren ezagutza jantziatara bakarrik jotzen dugu oraindik?

Bat-ala-beste honetan eta horren erabakiari dagokionez badago okerrrik egiten ez duen seinale bat. Hölderlin, poetak, noren obra ezagutzea alemaniarrek oraindik eginkizun daukaten, esaten baitu: «Nekez uzten du jatorritik hurbil bizi denak, leku hori».

(Die Wanderung IV, Hellingrath, 167 or.).

### *Azken hitza*

Aurreko gogoetak artearen igerkizunari dagozkio, artea bera den igerkizunari. Ez dugu igerkizuna asmatzeko asmorik. Egiteko geratzen da igerkizuna ikustea.

Arteari eta artistei buruzko ikerketa berezia hasten den garai beretik kasik gogoeta honi estetiko deitu ohi zaio. Estetikak arteobra objektu bezala hartzen du, eta hain zuzen ere \_\_\_\_\_-en objektu bezala,

zentzuen bidezko sumatze bezala. Gaur sumatze horri bizikizun deitu ohi zaio. Gizakiak artea bizitzen duen moduak eman behar digu bere esentziaren berri. Bizikizunak ez bakarrik arte-gustuari dagokionez, baizik arte-sorrerari dagokionez ere jatorri erabakigarri izan behar du. Dena da bizikizun. Baina, beharbada bizikizuna da artea hiltzen den osagaia. Hiltzea hain astiro gauzatzen da, non gizaldi batzuk behar dituen.

Egiaz, arteko obra hilezkorrak eta artea betiereko balio bezala aipatu ohi dira. Horrela hitz egiten da gauza guztietan zorrotz izan ohi ez den hizkuntzan, beldur baita zorrotz hartzeak azkenean esan nahi duela: pentsatzea. Zein da, ordea, gaur pentsatzea baino beldur handiagoa? Ba al du edukiririk eta trinkotasunik obra hilezkorrei eta balio eternaleri buruzko hizketak? Edo erdipentsaturiko esaldiak dira, arte handiak bere esentziarekin batera gizakiengandik ihes egin duen garai batean? Mendebalak artearen esentziari buruz daukan gogoeta zabalenean, metafisikaren arabera pentsatua baita, Hegelen «*Vorlesungen über Ästhetik*» obran datoz esaldiok:

«Guretzat jada artea ez da gehiago egiak existentzia eskuratzeko duen modurik gorenena» (obra osoak X, 1. 134. or.). «Espero izatekoa da, noski, arteak beti gora egin dezan eta osa dadin, baina bere forma ez da gehiago espirituaren premia gorenena» (Ib. 135. or.). «Alderdi guzti hauetatik, artea da eta izango da bere xede gorenaren aldetik iraganeko zerbait» (X, 1, 16.or.).

Esaldi hauetan Hegelek botatzen duen esakunari ezin ihes egin dakioke egiaztatuz: Hegelen Estetika azken aldiz 1818/29ko neguan Berlingo Unibertsitatean irakatsia izan zenez geroztik, guk arteobra eta arte-eraikuntza asko eta berriak eraikitzen ikusi ditugula. Hegelek ez zuen ukatu nahi posibilitate hori. Baina galderak lehenean segitzen du: Artea da oraindik modu esentzial eta beharrezko bat, non gure hor-izate historikoari dagokionean egia erabakigarria agitzen den, edo artea ez da gehiago hori? Baldin, ordea, ez bada gehiago hori, orduan galderak segitzen du, zergatik den hori horrela. Oraindik ez da erori Hegelen esakunari buruzko epaia; izan ere, esakun horren ostean grekoen geroztiko mendebaleko pentsakera dago, pentsakera horrek badenaren egia jada agituari erantzuten dio. Esakunari buruzko epaia etorriko da, baldin etortzen bada, badenaren egia horretatik eta horri buruz. Hara bitartean esakunak bere balioan iraungo du. Horregatik da beharrezkoa galdera: ea esakunak esaten duen egia azken egia den eta zer gertatuko den orduan, hori horrela bada.

Batzuetan argiago, bestetan gutxi gorabehera datozkigun galdera hauek galde daitezke bakarrik, baldin aldeztatik artearen esentzia pentsatu bada. Urrats batzuk aurreratzen saiatu gara, arteobraren jatorriari buruzko galdera egiten genuenean. Merezi du obraren obra-izaera begien aurrean jartzea. Jatorri hitzak hemen esan nahi duena egiaren esentziaren arabera dago pentsatua.

Ahotan darabilgun egia ez dator bat izen horrekin ezagutzen denarekin eta ezagutzari eta jakintzari tasun bezala itsatsi ohi zaionarekin, haren parean ederra eta ona bereizteko, hauek portaera ez-teorikoen izen bezala hartzen baitira.

Egia da badenaren, baden den aldetik, desezkututasuna. Egia da izatearen egia. Edertasuna ez da azaltzen egia honen ondoan. Egia obran jartzen denean, azaltzen da hura. Azaltzea da -egiaren izate hori bezala obran eta obra bezala- edertasuna. Horrela ederra egiaren bere agitzea da. Ederra ez dago lotua bakarrik atseginari, eta azken batean haren objektu bezala. Ederra datza edozein modutan forman, eta bakarrik forma garai batean izatetik, badenaren badentasun bezala, argitzen zelako. Garai hartan izatea \_\_\_ bezala agitu zen. \_\_\_\_\_-n egokitzen da. \_\_\_\_\_, \_\_\_\_\_ eta \_\_\_-ren osotasun bateratua, alegia, *da* \_\_\_\_\_-ren moduan. Presentzia modu hau bihurtuko da ens actu-ren actualitas. Actualitas errealitate bihurtuko da. Errealitatea bihurtuko da objektutasuna. Objektutasuna bihurtuko da bizikizun. Mendebaleko eran finkaturiko munduarentzat badena errealitatea bezala den modu honetan, ezkututzen da edertasunaren egiarekin batera joate berezi bat. Egiaren aldaketa esentzialari erantzuten dio mendebaleko artearen historia esentzialak. Hau edertasuna bere hartan harturik bezain gutxi uler daiteke bizikizunetik, emanik ezen artearen kontzeptu metafisikoak bere esentzia erdies dezakeela.

### *Osagarria*

79. eta 85. orrietan irakurle arretatsua zailtasun esentzial batek larritzen du, irudi baitirudi, «egiaren finkatzea» eta «egiaren etorrera agiaraztea» esaldiak ezin eraman daitezkeela sekula adostasunera. Izan ere «finkatze» horretan nahi bat dago, etorrerari ateak itxi eta hartaz ezinezko egiten duena. Aldiz, *agiarazte* horretan menpekotasun bat aldarrikatzen da eta orobat bidea libre uzten duen nahi-eza.

Gorapiloa askatzen da baldin guk finkatzea testu osoan zehar, hau da: bereziki «obran-jartzea» gida-xedapenean adierazten den zentzuan pentsatzen badugu. «Finkatze» horrekin eta «jartze» horrekin «kokatzea» ere bat dator, hiruak latinezko *ponere* aditzean oraindik bat datozelarik.

«Finkatzea» \_\_\_ bezala ulertu behar dugu. Hala esaten da 77. orrialdean: «Jartzea eta hartzea, \_\_\_-en zentzu grekoan daude pentsatuta alde guztietan (!), desezkutuan jartze bat esan nahi baitu». Grekozko «jartzeak» esan nahi du: kokatzea, altxa-arazte bezala, adibidez irudi bat, esan nahi baita: kokatzea, lurrean ipintzea opari sagaratu bat. Jartzeak eta kokatzeak honako zentzu hau dute: *honantz* (her), desezkutura, *aurre* (vor) presentziara ekarri, hau da: aurrean lurrean uztea (vorliegenlassen). Jartzeak eta kokatzeak ez dute esan nahi hemen inondik ere kontzeptu modernu probokatzilea: norbera (ni-subjektuarekiko) kontra-jartzea. Irudiaren egotea (hau da: distira begiratzailaren presentzia) beste zerbaite da gauzaren egotearen aldean objektuaren zentzuan. «Egotea» da (ik. 56. or.) distiraren iraupena. Aldiz, tesiak, anti-tesiak, sintesiak, Kanten eta idealismo alemaniarraren dialektikaren baitan, adierazten dute finkatze bat kontzientziaren subjektutasunaren esparruan. Hegelek, horregatik -bere jarreraren arabera, arrazoiz- grezierazko \_\_\_ objektuaren zuzeneko kokatze bezala ulertzen du. Kokatze hau hartaz, bere ustez, ez-egiazko da oraindik, antitesiaren eta sintesiaren bitartetik pasa ez delako (Ik. orain: «Hegel und die Griechen», Festschrift für H.-G. Gadamer, 1960).

Gorde dezagun halere begien aurrean \_\_\_\_-en zentzu grekoa arte-obrari buruzko saio honetan: Aurrean lurrean uztea bere distiran eta presentzian, orduan «finko»ak finkatze hitzean ez du sekula izango zurrin, higigaitz eta segurraren zentzurik.

«Finko»k esan nahi du: hesitua, mugen barruan ipinia (\_\_\_\_), inguru barrura ekarria (78. or. hh). Mugak, zentzu grekoan, ez du isten, presentea distiratzera darama baizik, ekoiztu bezala. Mugak aske uzten du desezkutuan; bere ingurunearen bitartez argi grekoan dago mendia bere altxatzean eta atsedean hartzean. Finkatzen duen muga atsedenean dagoena da -hain zuzen ere, mugikortasunaren betetasunean-, honek guztiak balio du obrari dagokionez \_\_\_\_-en zentzu grekoan; horren «izatea» \_\_\_\_\_ delarik, bere baitan «energia» modernoek baino mugimendu askoz gehiago biltzen du.

Horrela zuzen pentsaturiko egiaren «finkatzea» ezin joan daiteke inondik ere «agiaraztearen» kontra. Izan ere, alde batetik «arazte» hori ez da inolako pasibotasuna, baizik egite gorena (ik. «Vorträge und Aufsätze», 49. or.) \_\_\_\_-en zentzuan, «eragite» eta «nahi izate» bat, saio honetan (73. or.) «gizaki existentearen murgiltze ekstatikoa izatearen desezkututasunean» bezala adierazita geratu dena. Bestalde, «agitzea» da egiaren agiaraztean argiunean *eta* ezkutuan, zehatzago: bere batasunean agintzen duen mugimendua, hain zuzen ere autoezkutatzearen -autoezkutatze bezala- argiunearen mugimendua, nondik datorren argitzen den guztia. «Mugimendu» honek eskatzen du finkatze bat (honantz-aurrera-eramatea - her-vor-bringen) ekoiztearen zentzuan, non eramatea 77. or. eta hurrengoan izendatzen den zentzuan ulertu behar den, ekoizte kreatzaile (ateratzailea) «desezkututasunarekiko erlazioaren barruan hartze eta ateratze (sic) gehiago den» neurrian.

Orain artekoan argitu denaren arabera, zehazten da 85. orrialdean erabili den «hezurdura» (Ge-Stell) hitzaren esanahia: ekoizpenaren bilketa, azalaraztearena marrazkian ingurune (\_\_\_\_) bezala. Era horretan pentsaturiko «hezurdura»ren bidez argitzen da \_\_\_\_-ren zentzu grekoa itxura bezala. Baina egiaz gerora teknika modernoaren esentziarako hitz giltza bezala erabiliriko «hezurdura» hitza beste hezurdura haren arabera pentsatu behar da (*ez* liburu arasa eta montajearen arabera). Atxikidura hura esentzia da, izatearen patuari dagokiolako. Hezurdura, teknika modernoaren esentzia den aldetik, aurrean-jarrerazi greko esperimendutik, \_\_\_\_ dator eta \_\_\_\_\_ eta \_\_\_\_ grekoetatik. Hezurduraren finkatzean, hau da, orain: dena segur jartzeko aginduan ratio reddenda-ren eskakizuna mintzo da, hau da: \_\_\_\_\_-rena, halako moduan non orain eskakizun horrek hezurduran baldintzabakoaren nagusitasuna bere gain hartzen duen eta irudikatzea sumatze grekotik seguru eta tinko jartzean laburbiltzen den. Guk, alde batetik, finkatze eta hezurdura hitzak «arteobraren jatorrian» entzutean jartze eta hezurdura modernoaren esanahia burutik kendu behar dugu eta bestetik ezin dugu alde batera utzi ezen Aro Modernoa xedatzen duen izatea hezurdura bezala izatearen mendebaleko patutik datorrela eta ez dela izan filosofoek pentsatua, baizik pentsalariei emana (ik. «Vorträge und Aufsätze», 28. eta 49. or.).

Zail dira argitzen 77. or. h. «eraikitze»-ari eta «egiaren beraren eraikitzea badenean»-i buruz labor eman diren xedapenak. Berriro ekidin behar dugu «eraiki» zentzu modernoan, teknikari

buruzko mintzaldian bezala, «antolatu» eta bukatu bezala ulertzea. Aldiz «eraikitzea» 78. or. aipaturiko «egiaren obrarako joera» hartu behar da gogoan, ezen egia badenaren erdian, bera ere obra gisan, baden bihurtzen dela (62. or.)

Gogoetatzen badugu zenbateko neurrian egiak, badenaren desezkututasun bezala, ez duen besterik esaten ez bada badenaren presentzia, baden den aldetik, hau da: *izatea* (ik. 86. or.), orduan egiaren, hau da: izatearen beraren eraikitzeari buruzko jardunak, badenean, desberdintasun ontologikoaren zalantzazkoena jotzen du (ik. «Identität und Differenz», 1957, 37. hh. or.). Horregatik esaten da («Arteobraren jatorria», 61. or.) zuhurkiro: «Irekitasuna irekian eraikitzearen aipuarakin, oraindik hemen argitu ezin daitekeen eremu batera iristen da pentsatzea». «Arteobraren jatorria» saio osoa nahita, eta esan gabe halere, izatearen esentziari buruzko galderaren bidean dabil. *Artea* zer ote den, gogoeta guztiz eta erabat *izateari* buruzko galderatik abiatuz dago finkatua. Artea ez dago hartua kulturaren lorpen esparru bezala, ezta espirituaren agerpen bezala ere: datza *agitzean*, horren arabera finkatzen delarik «izatearen zentzua» (ik. «Sein und Zeit»). Artea zer ote den, saioan inolako erantzunik eman ez zaion galdera horietako bat da. Eta erantzun itxura daukana, galdera egiteko oharkizunak dira (Ik. Azken hitzako lehen esaldiak).

Oharkizun horien artekoak dira 85. eta 88. orrialdeetako bi *aipamen garrantzizko*. Bi pasarteetan «bikoiztasun» bat aipatzen da. 88. orrian aipatzen da «bikoiztasun esentzial» bat artea definitzen duelarik «egia-obran-jartzea» bezala. Hartaz, egia da behin «subjektu» eta beste behin «objektu». Ezaugarri *biak ala biak* «desegokiak» dira. Baldin egia «subjektu» bada, orduan «egiaren-obran-jartzea» definizioak dio: «egia *bera* obran jartzea» (ik. 74. or. eta 30. or.). Artea, beraz, agitzearen arabera dago pentsatua. *Izatea*, ordea, gizakiari egindako eskaera da, eta ez gizakirik gabe. Horregatik artea orobat definitzen da egiaren-obran-jartzea, eta *orain* egia «objektu» da eta artea gizakiaren aldetiko sortzea eta zaintzea.

Artearekiko *giza* erlazioaren barruan gertatzen da egiaren obran-jartzearen beste bikoiztasuna, 85. orrian sortze eta zaintze bezala izendatzen dena. 85h. eta 56h. or.en arabera *arteobra* eta *artelaria* biak «elkarrekin» pausatzen dira artearen presentzian. «Egiaren obran-jartzea» tituluari, non zehaztu gabe baina zehazteko *moduan* geratzen den nor edo zer zein eratan «jartzen den», ezkutatzen da izatearen eta giza esentziaren arteko erlazioa; erlazio hori, forma honetan dagoeneko, desegoki pentsatua izango da –zailtasun itogarri bat, nik «Sein und Zeit»en garbi neukana eta era askotan hizkuntzara datorrena (ik. azkenik «Zur Seinsfrage» eta saio hau, 61. or.: «Ohar bedi bakarrik, alegia...»).

Hemen agintzen duen zalantzazkotasuna biltzen da ondoren eztabaidaren leku propioan, hizkuntzaren eta poesiaren esentzia ukitzen den lekuan, guztia edozein modutan izatearen eta kontakizunaren elkarrekikotasunaren ikuspegitik.

Ezinbesteko neke bat geratzen da, alegia: irakurleak, saiora kanpotik datorrelarik, noski, ez duela irudikatzen eta ulertzen lehenbizi eta luzaz pentsatu beharrekoaren iturburu-esparru isilduaren

arabera. Egilearentzat, ordea, nekea geratzen da, bideko geldialdi desberdinetan, inolaz hizkuntza egokian hitz egitekoa.